



**IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA**



**SISTEMA DE GESTIÓN INTEGRADO DE
PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES
EN CENTROS DOCENTES**



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANeko ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

AURKIBIDE
OROKORRA

Ekainak 2005

3.Orr.

AURKIBIDE OROKORRA

Separadorea

1	LAN-SEGURTASUN ETA OSASUNeko POLITIKA OROKORRA	1
2	JARRAIBIDE OROKORRAK	2
3	PROZEDUREN ESKULIBURUA	3
02	Prebentzio- Zerbitzuari neurriak har ditzala eskatzeko pausuak	4
03	Istripu baten aurrean zer egin?	5
04	Erosketen kontrolarako prozedura	6
05	Desinfekzio, desintsektazio eta desratizaziorako aplikazioak (Fumigazioak)	7
06	Hondakin ezabatzeko prozedura	8
07	Arriskuen ebaluaziorako prozedura	9
08	Larrialdietarako plana	10
09	Laneko gorabeherak eta lan istripuak erregistratu eta jakinarazteko prozedura	11



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)


POLITIKA OROKORRA

AZALA

Ekainak 2005

5.Orr.

LAN-SEGURTASUN ETA OSASUNEKO POLITIKA OROKORRA

 <p>Lan Arriskuaren Prebentzio Zerbitzua</p>	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIOAREN ESKULIBURUA	
		POLITIKA OROKORRA	
		Ekainak 2005	7.Orr.

LAN-SEGURTASUN ETA OSASUNEKO POLITIKA OROKORRA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bidezko prebentzio-jarduera planifikatzeko betebeharra du, lanaren ondoriozko arriskuak ezabatu, kontrolatu eta gutxitzeko, lehentasun batzuei jarraiki, arriskuaren neurriaren eta arriskuaren mende dagoen langile-kopuruaren arabera. Ikastetxeak, era berean, helburutzat hartu du gero eta eraginkorrago izatea eta gero eta zerbitzu hobetoak eskaintzea, eta gogobetetze-mailarik altuenak iristea.

Egunero ikastetxera doazen pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzarik onenetan lortu behar dira bi helburu horiek: oinarrizkoa eta funtsezkoa da hori.

Ikastetxeko OOGk eta zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak aurrera daraman Lan Arriskuak Prebentzioaren Politikaren baitan, euren gain hartu dute Laneko Arriskuaren Prebentzioaren Kudeaketa Sistema Bateratua ezarri, gidatu eta garatzeko konpromisoa, eta sistema horren helburu nagusia izango da lan-istripu edo gaixotasun profesionalen arriskuak ezabatu edo gutxitzea, eta horrekin batera, haiek ekarri ohi dituzten lesio pertsonalak eta kalte materialak murriztea.

Sistema honek segurtatu egingo du etengabe beteko direla ikastetxeari aplikatzen diren Laneko Segurtasun eta Osasun arauak.

Aurrekoaz gain, lan-baldintzak eta bizi-kalitatea etengabe hobetzeko etika eta praktika txertatuko ditu, eta gainera, emandako zerbitzuen emaitzak hobetu.

Horretarako, zuzendaritza-taldearen lidergoaz gain, ezinbestekoa da ikastetxeko langileek eta hezkuntza-komunitatea osatzen dugun guztiok Arriskuaren Prebentzioa geuregan dezagun beste funtzio edo zeregin bat gisa, gainerako funtzioetarako erabiltzen dugun ardura berberarekin; izan ere, Sistema hori ezartzen eta garatzen parte hartzen badugu, lana gero eta seguruago eta eraginkorrago izango da, eta horrekin, halaber, ezbehar-tasa gutxitu eta lan-bizitzaren kalitatea hobetzea lortuko dugu.

Jarraibide hauek Laneko Arriskuaren Prebentzioaren Kudeaketa Sistema Bateratuaren garapeneraren bitartez hedatzen dira, eta garapen hori urteko planen barruan sartzen da, helburuak jarri eta betetzearen bidez.

ZUZENDARIA

, 200_ko aren a



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)


JARRAIBIDE
OROKORRAK

AZALA

Ekainak 2005


9.Orr.

JARRAIBIDE OROKORRAK

 Lan Arriskuaren Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIO ESKULIBURUA	
		JARRAIBIDE OROKORRAK	
		Ekainak 2005	11.Orr.

AURKIBIDEA

- 1 SARRERA**
- 2 HELBURUA ETA IZAERA**
- 3 APLIKAZIO EREMUA**
- 4 FUNTZIOAK ETA ERDURAK**
 - 4.1 HEZKUNTZA SAILARENAK .
 - 4.2 PREBENTZIO-ORDEZKARIENAK .
 - 4.3 O.O.G-RENAK .
 - 4.4 ZUZENDARITZA TALDEA ETA SEGURTASUN LAGUNTZAILEARENAK.
 - 4.5 LANGILEENAK.
- 5 KOMUNIKAZIO ETA FUNTZIONAMENDU ORGANIGRAMA**
- 6 PREBENTZIOAREN KUDEAKETA-SISTEMAREN JARDUERAK**
 - 6.1 PREBENTZIO-SISTEMAREN LIDERGOA ETA KUDEAKETA.
 - 6.2 PREBENTZIO ZERBITZUARI NEURRIAK HAR DITZAN ESKATZEKO PAUSUAK.
 - 6.3 ISTRIPU BATEN AURREAN ZER EGIN.
 - 6.4 EROSKETEN KONTROLA.
 - 6.5 DESINFEKZIO, DESINTSEKTAZIO ETA DESRATIZAZIORAKO APLIKAZIOAK (FUMIGAZIOAK).
 - 6.6 HONDAKINAK EZABATZEA.
 - 6.7 ARRISKUEN EBALUAZIOA.
 - 6.8 LARRIALDIETARAKO PLANA (LARRIALDI ZUZENDARITZAK GARATUA).
 - 6.9 LANEKO GORABEHERAK ETA LAN ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA.
- 7 PREBENTZIORAKO URTEKO PROGRAMA**
- 8 APLIKAZIO-DOKUMENTUAK**
- 9 ESKULIBURUAREN EGUNERATZEA**

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIO ESKULIBURUA	
		JARRAIBIDE OROKORRAK	
		Ekainak 2005	13.Orr.

JARRAIBIDE OROKORRAK

1 SARRERA


Lan Osasun eta Segurtasuneko Politikak bere barruan hartzen du Zuzendaritzaren, Arduradunen eta Langileen konpromisoa, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA abiatzearen ildotik. Prebentzioari buruzko Jarraibide Orokorretan, beraz, ikastetxeko maila desberdinek aurreko konpromisoa bereganatzean hartzen dituzten eginkizunak eta ardurak definitzen dira, baita Sistema osatzen duten jarduerak ere, estamentu desberdinek burutu behar dituzte eta, Laneko Segurtasun, Higiene eta Osasun helburuen urteko programen barruan.

Horrek guztiak erreferentzia-markoa osatzen du, Sistema osoaren goiburu eta gidari, eta haren garapena Prebentzioa Kudeatzeko Prozeduretan zehazten da, ikastetxean Eskuliburu gisa finkatuko diren tresnak baitira.

2 HELBURUA ETA IZAERA

Jarraibide Orokorren helburu dira:

- Izaera orokorreko prebentzio-estrategia ezartzea, Ikastetxeko langileen jarduerak, kontratenak eta ikastetxean dauden hirugarrenenak arautuko dituena.
- Eraginkortasunik handiena lortzea Laneko Segurtasun, Higiene eta Osasunari dagokienez, arriskuak kontrolatu eta txikiagotzeko.
- Ikastetxeak ezarritako Laneko Segurtasun, Higiene eta Osasunaren Politika Orokorren printzipioak betetzea, eskuliburu honek goiburu eta gidari dituen dokumentuaren arabera.
- Indarreko ordenamendu juridikoak xedatu duena osatu eta batera biltzea, bereziki Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduak (39/1997 E.D.) eta ikastetxean aplika daitezkeen beste arau batzuek.
- Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketa Sistema Bateratuaren jarduera-esparru zehatza ezartzea, Prebentzioaren Kudeaketa Prozeduren (PKP) bidez garatuko dena jarduteko eremu desberdinetan.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIO ESKULIBURUA	
		JARRAIBIDE OROKORRAK	
		Ekainak 2005	14.Orr.

3 APLIKAZIO EREMUA

Jarraibide Orokorrak eta Prebentzioaren Kudeaketa Prozedurak ikastetxean aplikatuko dira, baita ikastetxeak parte hartzen duen edozein lanetan ere, eta derrigorrez bete beharreko arau izango dira ARDURADUN zein LANGILEENTZAKO, baita ikastetxean lanean diharduten KONTRATEN langileentzako eta ikastetxean dauden HIRUGARRENTZAKO ere.

4 FUNTZIOAK ETA ARDURAK

Ikastetxeak eta Hezkuntza Sailak bereganatuko dituzte Lan Segurtasun eta Osasunari buruzko funtzioak eta ardurak. Ikastetxeko antolamendu-maila bakoitzarentzako funtzioak eta ardurak ondorengo lerroaldeetan ezarriko dira, oro har, eta, bereziki, Sistema osatzen duten jardueri dagozkien Prozeduretako bakoitzean.

4.1 HEZKUNTZA SAILA

Prebentzio Eskuliburuko prozedura bakoitzean zehazten dira Hezkuntza Sailaren funtzioan eta ardurak.


Ez dira ahaztu behar 31/95 Legeak bere III. Kapituluari Herri Administrazioei esleitu dizkienak:

*“Langileek lanean euren segurtasuna eta osasuna bermatuko dituen benetako babesa jasotzeko eskubidea dute. Eskubide horrek berarekin dakar enpresaburuaren betebeharrak: langileek laneko arriskuetatik babestu beharra. Babesteko behar hori, era berean, **Herri Administrazioei** ere badagokie, haien zerbitzupuan diharduten langileekiko.”*

4.2 PREBENTZIO-ORDEZKARIAK

Prebentzio-ordezkarien eskumenak eta ahalmenak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 36. artikuluan zehazten dira, eta honako hauek dira:

- Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzarekin batera, prebentzio-ekintza hobetzen lanean aritzea.
- Laneko arriskuen prebentzioko araudia gauzatzen langileen parte-hartzea sustatzea.
- Laneko Arriskuen Prebentzioko Legeko 33. artikulua aipatzen dituen erabakiak gauzatu aurretik Administrazio eta Zerbitzuen


 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANeko ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIO ESKULIBURUA	
		JARRAIBIDE OROKORRAK	
		Ekainak 2005	15.Orr.

Sailburuordetzari horien gainean iritzia ematea.

- Laneko arriskuen prebentzioko araudia betetzen dela zaintzea eta egiaztatzea.
- Dagozkien eskumenak betetzeko, Prebentzio-ordezkariek honako ahalmen hauek izango dituzte:
 - a) Prebentzio-ebaluazioak egitera doazenean teknikariei laguntzea, laneko eta gizarte segurantzako ikuskatzaileei laguntzea, eta egokitzat jotzen dituzten iritziak horiei jakinaraztea.
 - b) Lan-baldintzei buruzko informazioa eta dokumentazioa eskura izatea.
 - c) Langileen osasunari eragindako kalteei buruzko informazioa jasotzea, eta gertakariak izan diren lekura bertaratzea zer nolakoak izan diren ezagutzeko.
 - d) Prebentzio-jardueren arduradunengandik eta segurtasun eta osasuneko erakundeetatik datorren informazioa jasotzea.
 - e) Lantokietan ikustaldiak egitea, lan-baldintzen egoerari buruzko egiaztatze- eta kontrol-lanak egiteko.
 - f) Administrazioari eta Segurtasun eta Osasuneko Batzordeari proposamenak egitea, Batzordean horiei buruz eztabaidatzeko.
 - g) Berehalako eta larritasun handiko arrisku-egoeretan, langileen ordezkariari edo eragindako lantokiko zuzendaritzari jarduera eteteko eskatzea.
- Hezkuntza Sailak Prebentzio-ordezkariek proposatutako neurriei ezezkoa ematen badie, erabaki hori arrazoitu eta idatziz eman beharko du.

4.3 O.O.G.

Euskal Eskola Publikoari buruzko 171993 Legearen 31.1. artikulua ezarritakoaren arabera, **Ordezkaritza Organo Gorena (OOG)** da eskola-elkarteko kideen partaidetza-organoa euskal eskola publikoko ikastetxeen gobernuan, eta beroni dagokio eskola-bizitzarako funtsezkoak diren erabakiak hartzea, eta ikastetxearen autonomi esparruan, ikastetxearen jardueraren azken erantzulea da.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIO ESKULIBURUA	
		JARRAIBIDE OROKORRAK	
		Ekainak 2005	16.Orr.


Hortaz, OOGri dagozkio

- Ikastetxean ezarri beharreko LAPKSB onartzea, jarraibide orokorrak finkatuz, eta haren ondoriozko prozedura eta planak onestea.
- Laneko Arriskuen Prebentzioko urteroko planak onartzea.
- Ikastetxeek duten finantza-autonomiaren baitan, esparru honetarako aurrez ikusi diren planak landu eta abiarazteko baliabideen dotazioa baimentzea.

4.4 ZUZENDARITZA-TALDEA / SEGURTASUNEKO LAGUNTZAILEA.

Zuzendaritza-taldeak / Segurtasuneko laguntzaileak, bere jarduera- eta kudeaketa-eremuari dagozkion eginkizunak eta erantzukizunak bete beharko ditu, eta zuzendaritza-taldeak segurtasuneko laguntzailearen esku utziko du ikastetxeko lan-arriskuak prebenitzeko zeregina, baina ez horren erantzukizuna.

- Ikastetxeko langile guztiek osasuna zaintzeko aldizkako prozesuetan parte har dezaten lagunduko du, eskueran dituen baliabideak erabiliz.
- Indarrean dauden prozedurak eta arauak, lan-arloko arauak eta bere ardurapean dagoen esparruari aplikatu dakiokkeen indarreko araudia ezagutu, bete eta betearaziko ditu.
- Prestakuntzako, informazioko eta parte hartzeko ekintzak eta prozedurak sustatuko ditu langileak prebentzioko helburuez jabetu daitezzen.
- Prebentzio-plana ezartzearen ondorio diren bere ardurapeko jarduera guztiak gauzatu ditu. Jarduera horiek Sailaren jarduera-multzoan integratu behar dira.
- Beharrezko baliabideak ipiniko ditu izan daitezkeen arriskuak antzemateko, eta horrelakoak prebenitu eta zuzenduko dituzten ekintza egokiak garatzeko.
- Bere ardura denean istripuak eta gertakariak erregistratu, jakinarazi, eta, hala badagokio, ikertuko ditu, jazotakoaren zuzeneko eta oinarritzko arrazoiak zehazteko.
- Bere ardurapeko esparruan igartzen duen edozein arazo edo ekintza arriskutsu zuzentzeaz arduratuko da, eta bere ardurapekoak ez diren esparruetan antzemandakoak dagokionari jakinaraziko dizkio.
- Ikastetxeko Zuzendaritzak edozein jarduera bertan behera utzi ahal

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIO ESKULIBURUA	
		JARRAIBIDE OROKORRAK	
		Ekainak 2005	17.Orr.

izango du berehalako arrisku egoerak sortzen direnean; horrelakoetan, nagusiari gertatutakoaren berri emango dio berehala, egoera horiek prebenitzeko irtenbiderik egokiena bilatzeko.

- Bere ardurapeko langileei laneko segurtasun eta osasunean bete behar dituzten eginkizunak, jarduerak eta betebeharrak ezarri eta zehaztuko dizkie.

4.5 LANGILEAK


Langileek lanean euren segurtasuna eta osasuna bermatuko dituen benetako babesa jasotzeko eskubidea dute. Horretarako:

- Langileek euren lantokian zein lanpostuetan eurretan dauden arriskuen berri izan behar dute; halaber, horrelako arriskuei aurre egiteko aplikatu daitezkeen prebentzio-neurriak eta dagoeneko hartu direnak ezagutuko dituzte.
- Langileek beharrezko prestakuntza jasoko dute euren lantokian zein lanpostuetan dauden arriskuak ezagutzeko, identifikatzeko eta deuseztatzeko edo murrizteko.
- Langileek, zuzenean edo euren ordezkarien bidez, prebentzio-politika zehazten parte ahal izango dute, bai eta dauden arriskuak identifikatzen, eta horiek deuseztatzeko proposamenak egiten ere.
- Langileek eskubidea izango dute euren jarduera eteteko eta lantokitik irteteko, jarduera horrek euren bizia edo osasuna berehalako arrisku larrian jartzen dituela uste dutenean.
- Langileek eskubidea izango dute osasun-zaintza jasotzeko euren jarduerari loturiko arriskuen arabera.

Prebentzioari dagokionez, langileen betebeharrak Laneko Arriskuen Prebentzioko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 29. artikuluan aipatzen direnak izango dira.

Prebentzio-sistemari dagokionez, hauek izango dira langileen eginbeharrak:

- Euren ardura-arloko araudia eta prozedurak ezagutu eta beteko

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANeko ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIO ESKULIBURUA	
		JARRAIBIDE OROKORRAK	
		Ekainak 2005	18.Orr.

dituzte, bai eta arlo horri aplikatu dakiokeen indarreko legedia ere.

- Ikastetxeak segurtasun-arloko prestakuntzari eta informazioari buruz antolatzen dituen ikastaroetara joango dira.
- Euren arloan eta lantokietan baldintza orokorrik onenak sustatu eta bilatzeaz gain (segurtasuna, higieena, osasuna, mantentze-lanak eta kalitatea), hobekuntza-proposamenak egingo dituzte.
- Prebentzio-arloan jasotako irakaspenak behar bezala aplikatuko dituzte.
- Ikastetxean ezarritako segurtasun-arau orokorrak eta prebentzioa kudeatzeko prozedurak beteko dituzte, eta lan-prozedurei jarraituko diete segurtasunez lan egiteko, ezarritako jarraibideen eta, edozein kasutan, profesionaltasun oneko irizpideen arabera.
- Norbera babesteko baliabideak eta ekipamenduak behar bezala erabiliko dituzte segurtasunez lan egiteko, erabiltzeko moduan daudela ziurtatuz eta egoera egokian mantenduz.
- Erabili behar dituzten ekipamenduak, tresnak eta instalakuntzak zaintzeaz arduratuko dira egoera onean mantenduz.
- Pertsona edo gauzetarako arriskutsu izan daitekeen edozein egoera antzematen dutenean, luze gabe, euren nagusiei jakinaraziko diete.
- Prebentzio-programaren jarduerak lantzen eta abiarazten parte hartuko dute.
- Gerta daitekeen edozein larrialdiren aurka aritzen lagunduko dute.
- Elkarlanean jardungo dute Zuzendaritzarekin, lan-baldintzak seguruak eta langileen segurtasun eta osasunerako arriskurik gabekoak izan daitezen bermatu ahal izateko.


5 KOMUNIKAZIO ETA FUNTZIONAMENDU ORGANIGRAMA

Prebentzio Sistemaren jarduerak burutzetik sortzen den informazio guztia, oro har, horiek garatzeko prozedura bakoitzean ezarritako mailetaraino helaraziko da.

Zuzendaritzak eta Hezkuntza Sailak ezarritako komunikazio-bideetatik jasoko dituzte beharrezko informazioa. Informazio horren edukia kontuan hartuta, ekintza egokiak abiaraziko dituzte, zeinek bere erantzukizun-alorrean.

6 PREBENTZIOAREN KUDEAKETA-SISTEMAREN JARDUERAK

Zenbait jarduera garatu, ezarri eta jarraitzeak osatzen du Ikastetxeko

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIO ESKULIBURUA	
		JARRAIBIDE OROKORRAK	
		Ekainak 2005	19.Orr.

Prebentzio Sistema, eta jarduera horiek, bere osotasunean, tresna sistematizatu bat taxutzen dute, Ikastetxean izan daitezkeen osasun-arriskuak, istripuak/gorabeherak eta kalte materialak prebenitzeko. Prozedurek arautzen dituzte jarduera horiek, eta kasu bakoitzean jarduteko moduak eta erantzukizunak definitzen. Hona jarduerok:

6.1 PREBENTZIO-SISTEMAREN LIDERGOA ETA KUDEAKETA.

Bere baitan hartuko ditu ildo exekutiboak garatuko dituen jarduera guztiak, alegia, Ikastetxeko Prebentzio Sistema definitu, ezarri, betetzen ote den begiratu eta laguntzeko garatutakoak: ikastetxearen politika definitzea Laneko Segurtasunari eta Osasunari dagokienez, Prebentzio Jarraibide Nagusiak definitzea, funtzionamendu-organigramak, sistemaren jardueren prozedurak, segurtasuneko aldizkako programak, helburuak, ebaluazioa, zuzentzeko eta aurrea hartzeko neurrien kontrola, eta abar. Horiek definitzen dituzten dokumentu-euskarrien multzoa Prebentzio Sistemaren Eskuliburuan jasoko dira.

Horien garapena hemen dago Lan Segurtasun eta Osasuneko Politika , eta Jarraibide Orokorrak dokumentu honetan bertan.

6.2 PREBENTZIO-ZERBITZUARI NEURRIAK HAR DITZALA ESKATZEKO PAUSUAK.

Prebentzio Zerbitzuari neurriak har ditzala eskatzeko orduan azkar eta jakinaren gainean ibiltzeko, P.K.P. 02 izena daraman prozedura ezarri da


6.3 ISTRIPU BATEN AURREAN ZER EGIN?

Irizpideak eta prozedurak P.K.P. 03 honen bitartez ezarri dira

6.4 EROSKETEN KONTROLA.

Sistema bat sortuko da, lehengai arriskutsuen hornitzaileek (fabrikatzaileek, inportatzaileek eta zuzkitzaileek) informazioari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruzko legeria betetzen dutela begiratzeko. Informazioa produktuaren fitxan jasoko da, eta halako gaiak erabiltzen dituzten langileen artean banatuko.

Zerbitzu honen eskatzaileak edo arduradunak honako hau bilatu behar dute: erabiltzerakoan arriskurik txikiena sortzen duten materialak, ordezkatu badaitezke behintzat.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIO ESKULIBURUA	
		JARRAIBIDE OROKORRAK	
		Ekainak 2005	20.Orr.

Material eta produktu arriskutsuak non biltegitatu behar diren zehaztuko da, horien arteko bateragarritasunari begiratuta.

Tarteko edukiontzia etiketatzeko sistema ezarriko da, produktua identifikatuta egon dadin, unean-unean.

Jarduera honen garapena P.K.P. 04 prozeduran ageri da.

6.5 DESINFEKZIO, DESINTSEKTAZIO ETA DESRATIZAZIORAKO APLIKAZIOAK. (FUMIGAZIOAK)

Irizpideak eta prozedurak P.K.P. 05 honen bitartez ezarriko dira.

6.6 HONDAKINAK EZABATZEA.

Irizpideak eta prozedurak P.K.P. 06aren bitartez ezarriko dira.

6.7 ARRISKUEN EBALUAZIOA.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarri dira Arriskuak Ebaluatzeko irizpide nagusiak; Prebentzioko Zerbitzuei buruzko Araudiaren II. kapituluko lehen sekzioak, bere aldetik, luze garatzen du Arriskuen Ebaluazioa.

Sailak burutuko du jarduera hau, bere kabuz, eta ikastetxeak bere esku izango duen dokumentua sortuko da. Jarduera hau zehaztuago ikus daiteke P.K.P. 07an.

6.8 LARRIALDIETARAKO PLANA. (LARRIALDIEI AURREGITEKO ZUZENDARITZAK GARATUA)


Ikastetxeak badu bere larrialdi-plana, larrialdi-arriskuak eta pertsonen, instalazioen eta inguruari ekar diezazkiekeen eraginak aztertzen dituen, baita larrialdirik gertatuz gero egin beharrekoak ere. Jarduera honen garapena hemen dago jasota: LARRIALDIETARAKO PLANA, EJren Herrizaingo Saila – Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.

6.9 LANEKO GORABEHERAK ETA LAN ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA

P.K.P. 09 prozeduran azaltzen da.

7 URTEKO PREBENTZIO-PROGRAMA

Sailaz gain, ikastetxeak, Ikastetxearen Urteko Planaren barruan, Lan Arriskuen

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PREBENTZIO ESKULIBURUA	
		JARRAIBIDE OROKORRAK	
		Ekainak 2005	21.Orr.

Prebentzioko jardueren programazioak defini ditzake.

Jarduera horiek urtebeteko aldietan programatuko dira, eta Urteko Prebentzio Programan jasoko. Programazio horrek helburu zehatzak jasoko ditu, burutzeko datekin, arduradunekin eta ezarritako helburuen betetze-mailaren aldizkako ebaluazioarekin.


Segurtasun-lankidearen lana da Zuzendaritzaren eta Arduradunen laguntzarekin lantzea helburuen dokumentua, eta programan ezarri diren helburuen betetze-maila ebaluatzea.

Ondorengoak aipa ditzakegu urteko programa osa dezaketen puntuen artean:

- Arriskuen ebaluazioa
- Ikuskapenen urteko programa (Alorrak, ikuskaritza-taldeak eta maiztasuna).
- Istripuen oinarrizko arrazoen azterketa. Urteko txostena.
- Prestakuntza-plana.
- Norbera babesteko ekipoen erabilpen-maila egiaztatzea.
- Larrialdi-ekipoak egiaztatzea.
- Segurtasunari buruzko Datuen Fitxak biltzea, eta lanpostuetarako informazioa lantzea.
- Ingurumen-neurketen kontrola eta jarraipena egiteko programa.
- Langileen osasuna ebaluatzeke eta kontrolatzeko programa. (Mediku-azterketak).
- Lanerako prozedurak eta jarraibideak lantzea eta berrikustea.
- Ikuskaritzen, ikerketen, bileren edo beste edozein jardueraren ondoriozko neurri zuzentzaileak eta aurrea hartzekoak, burutzeke daudenak, abiarazteko ekintza-programa.
- Sistemaren emaitzak berrikustea eta eraginkortasuna kontrolatzea.
- Barne-auditoriak egitea.

8 APLIKAZIO-DOKUMENTUAK

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa.
- Prebentzioko Zerbitzuen Araudia (39/97 ED, urtarrilaren 17koa).
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Segurtasun eta Osasuneko Politika Orokorra

 <p>Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	<p>IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)</p>	<p>PREBENTZIO ESKULIBURUA</p>	
		<p>JARRAIBIDE OROKORRAK</p>	
		<p>Ekainak 2005</p>	<p>22.Orr.</p>

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-3374/es/>

- Prozeduren Eskuliburua osatzen duten prozeduren Erreferentzia Dokumentuen atalean ageri den arau aplikagarrien zerrenda.
- Gaiarekin zerikusia duen legeria aurkitzeko lotura. (iturria: INSHT)

http://www.mtas.es/insht/legislation/tl_todos.htm

9 ESKULIBURUAREN EGUNERATZEA

Jarraibide Orokorrei buruzko dokumentu honen edukia Sailak alda dezake, arauak edo esperientziak horretarako bide ematen badute.

Ikastetxeak aldaketak proposa ditzake, baita bere ikastetxe-errealitatera egokitzea ere.

Beharren arabera egindako aldaketak Eskuliburuaren eranskin gisa sartuko dira. Erabakitakoaren arabera, dagokionean txertatuko dira testuan, behin betiko.



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)


PROZEDUREN
ESKULIBURUA

AZALA

Ekainak 2005

23.Orr.

PROZEDUREN ESKULIBURUA

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		AURKIBIDEA	
		Ekainak 2005	25.Orr.

P.K.P. IZENBURUA

- 02 Prebentzio- Zerbitzuari neurriak har ditzala eskatzeko pausuak
- 03 Istripu baten aurrean zer egin?
- 04 Erosketen kontrolarako prozedura
- 05 Desinfekzio, desintsektazio eta desratizaziorako aplikazioak
(Fumigazioak)
- 06 Hondakin ezabatzeko prozedura
- 07 Arriskuen ebaluaziorako prozedura
- 08 Larrialdietarako plana
- 09 Laneko gorabeherak eta lan istripuak erregistratu eta jakinarazteko prozedura



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

PROZEDUREN
ESKULIBURUA
AZALA P.K.P 02

Ekainak 2005

27.Orr.

**PREBENTZIO- ZERBITZUARI NEURRIAK
HAR DITZAN ESKATZEKO PAUSUAK**



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANeko ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)


LAN-ARRISKUA DELA ETA; PREBENTZIO
ZERBITZUARI NEURRIAK HAR DITZAN
ESKATZEKO PROZEDURA


PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 02

Ekainak 2005

29.Orr.



 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 02	
	LAN-ARRISKUA DELA ETA; PREBENTZIO ZERBITZUARI NEURRIAK HAR DITZAN ESKATZEKO PROZEDURA	Ekainak 2005	30.Orr.

REQUERIMIENTO DE ACTUACIÓN O COMUNICACIÓN ANTE UN RIESGO LABORAL
LAN ARRISKUA DELA ETA, PREBENTZIO ZERBITZUARI ZUZENDUTAKO ESKAERA.

**A la atención del RESPONSABLE DEL SERVICIO DE PREVENCIÓN
PREBENTZIO ZERBITZUKO ARDURADUNARENTZAT**

Komunikazioegilea / Datos del Comunicante:
Izen eta Abizenak / Nombre y Apellidos: _____
Lanpostua / Puesto: _____ Ikastetxea/ Centro: _____
Prebentzio ordezkaria/Delegado de Prevención Sindikatua: _____
Bestelakoa/Otros: _____ Adierazi/Indicar: _____
Tf. / Tel.: _____ Faxa / Fax: _____ E-posta / E-mail: _____

Gaia/Asunto: _____

Atxikitutako dokumentuak/ Se adjuntan los siguientes documentos.

- 1: _____
2: _____
3: _____
4: _____

En _____ a _____ de _____ de 20__ // _____.-n 20__ (e)ko _____ ren _____ n

	Data / Fecha	Sinadura / Firma
VºBº del Responsable del Servicio de Prevención Prebentzio Zerbitzuko Arduradunaren Oniritzia		
Prebentzio zerbitzuak jaso./ Recepción por el Técnico del Servicio de Prevención.		
Data/Fecha .	Zerbitzuko teknikaria/Técnico del Servicio.	Sinadura/Firma.



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua


IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

PROZEDUREN
ESKULIBURUA
AZALA P.K.P 03

Ekainak 2005

31.Orr.

ISTRIPU BATEN AURREAN ZER EGIN?

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 03	
	NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN AURREAN?	Ekainak 2005	33.Orr.

AURKIBIDEA

1 HELBURUA

2 NORAINOKOA

3 GARAPENA

3.1 DEFINIZIOAK

3.2 JARDUTEKO PROZEDURA

3.2.1 Istripuaren ondoriozko larrialdi medikoa gertatuz gero.

3.2.2 Gaixotasunaren ondoriozko larrialdi medikoa gertatuz gero.

3.2.3 Istripuaren edo gaixotasunaren ondoriozko jarduera medikoa
(premia larrikoa ez bada) .


A) Gizarte Segurantzako Erregimenari Atxikiak (GSIN)

B) Lehen Hezkuntzako Erlijio-irakasleen kasu berezia

C) MUFACEren erregimenari atxikiak

4 ERREFERENTZI-DOKUMENTUAK

5 FLUJOGRAMA

 <p>Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 03	
	NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN AURREAN?	Ekainak 2005	35.Orr.

1 HELBURUA

Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketa Sistema Bateratuan ezarritako helburuak betez, prozedura honen helburua da jarduteko metodologia definitzea, istripua gertatzen denean izan beharreko jarduera ahalik eta ondoen kontrolatzeko.

2 NORAINOKOA

Prozedura hau ikastetxeko alor guztietan aplikatzen da, baita ikastetxetik kanpo ere, ikastetxeko langileen lan-istripuekin loturarik badago.

3 GARAPENA


3.1 DEFINIZIOAK

Oso garrantzizkoa da atal hau irakurtzea, lan-istripuaren kontzeptuaren esanahiaz eta norainokoaz jabetzeko.

LAN-ISTRIPUA: lan-istripuztat joko da soldatako langileak egiten duen lanean edo lanaren ondorioz jasan dezakeen edozein gorputz-lesio. (1/1994 errege dekretu legegilea, gizarte ongizatearen lege orokorraren testu bateratua onetsi duena. ekainaren 29ko BOE)

HONAKO HAUEK JOKO DIRA LAN-ISTRIPUTZAT (AIPATU LEGEAREN 115. ARTIKULUKO 2. PARAGRAFOAN :

- a. Langileak lantokirako joan-etorrietan izandakoak.
- b. Langileak sindikatu-izaerako hautatze-karguetan edo horien ondorioz jasandakoak, baita kargu horien funtzioak egiten diren tokirako joan-etorrietan izandakoak ere.
- c. Langileak bere kategoria profesionalari dagozkion zereginenez bestelakoetan edo haien ondorioz izandakoak, zereginok enpresaburuaren aginduak betez egin baditu, edo bere kabuz, enpresaren funtzionamendu onaren mesedetan.
- d. Salbamendu-ekintzetan eta antzekoetan gertaturikoak, batzuek zein besteek lanarekin lotura dutenean.
- e. Hurrengo artikulua barruan sartzen ez diren gaixotasunak, langileak lana dela eta hartu baditu; betiere, gaixotasunaren arrazoi bakarra lana betetzea izan dela frogatzen bada.
- f. Langileak lehendik zituen gaixotasunak edo gabeziak, istripuak eragindako lesioaren ondorioz larriagotzen baldin badira.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 03	
	NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN AURREAN?	Ekainak 2005	36.Orr.

g. Istripuaren ondorioak, izaeran, iraupenean, larritasunean edo amaieran aldatzen baldin badira tartekatzen diren gaixotasunen ondorioz, azken horiek istripuak berak ekarri duen prozesu patologikoaren ondoriozko konplikazioak badira, edo sorburu badute gaixoa sendatzeko kokatu duten inguru berriak hartutako gaitzetan.

Kontrako frogarik ezean, langileak lantokian eta lan-denboran izandako lesioak lan-istripuztat joko dira.

EZ DIRA LAN-ISTRIPUTZAT JOKO:

- a. Lanaz kanpoko ezinbesteko kasutzat joko intsolazioa, tximista eta antzeko natura-gertakariak.
- b. Istripua jasan duen langilearen dolo edo zuhurtziagabetasun ausartegiaren ondoriozkoak.

ONDOKO HAUEK EZ DUTE ISTRIPU BAT LAN-ISTRIPUTZAT JOTZEA ERAGOTZIKO:

- a. Zuhurtziagabetasun profesionalak, ohiko lan bat egitearen ondorio bada, lan horretan hartutako konfiantza dela bide.
- b. Enpresaburuaren, istripua izan duenaren lankide baten edo hirugarren baten erruduntasun zibila edo kriminala ere gertatu izanak.


3.2 JARDUTEKO PROZEDURA

P.K.P. 03 flujograman, prozedura intuitiboki ikusi ahal da.

Ikastetxeren batean langileren batek laguntza medikoa behar badu, ondoko protokoloa abiaraziko da.

Protokolo honetan jasotako informazioaren bidez, honako hau eskaini nahi dugu: larrialdietan jarduteko eredu bat, berehalako atentzioa behar duen istripurik edo gaixotasunik gertatuz gero gidatzat hartuko dena.

Gure asmoa ez da sorosle profesional gisa aritu zaitezten, baizik eta, behar izanez gero, zauritu bati edo gaixo bati arreta egiteko jarraibideen berri ematea. Istripurik edo gaixotasunik gertatuz gero, funtsezkoa da jakitea **nola eta noiz** esku hartu behar den, zauritua bizirik irautea bermatzeko.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 03	
	NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN AURREAN?	Ekainak 2005	37.Orr.

3.2.1 ISTRIPUAREN ONDORIOZKO LARRIALDI MEDIKOA GERTATUZ GERO

Gure ikastetxeetan sarritan gertatzen dira istripuak, giza-bizia arriskuan jarri, eta berehala jardutea eskatzen dutenak, istripua jasan duena salbatuko bada. Pertsonal sanitarioa datorren bitartean, berebiziko garrantzia du zaurituari arreta egokia berehala emateak, akatsak negargarriak izan daitezke eta.

➤ **BABESTU**

BABESTU diogunean, honako hau esan nahi dugu: saihestu egin behar dela gertatu den istripua larriago bihurtzea, bai zaurituari, bai inguruetan egon daitekeen beste edonori begira. (Zirkuitulabur baten ondorioz, kontaktu elektrikoko istripurik gertatzen bada, funtsezkoa da babestea, elektrizitatea moztuz. Istripuaren eragilea gas-ihesa bada, gelako leihoak ireki eta gas-giltza itxiko dugu babesteko.


Istripua ibilgailu bat iraultzearen ondorioz gertatu bada, tokia inguratu edo kordonatuz babestuko dugu, gainerakoak istripuaren tokira hurbil daitezen saihestuz.)

➤ **ABISUA EMAN**

ABISUA EMAN diogunean, alarma jotzeko egin behar diren deiez ari gara. Anbulantziari deitu (**112**), poliziar, suhiltzaileei..., istripuaren eta haren larritasunaren arabera. Erakunde horiei azkar deitzea funtsezkoa da istripua izan duenarentzat. Horregatik, oso egokia da ikastetxean pertsona bat izatea, istripua gertatuz gero alarma jotzeko ardura izango duena, baita beharrezko deiak egiteko ere, laguntza medikoa jasotze aldera. Pertsona horrek enpresaren sistema telefonikoa menderatu behar du (administrazioko langileak, atezaina, segurtasun-lankidea...).

➤ **LAGUNDU**

LAGUNDU diogunean, honako hau esan nahi dugu: istripua izan dutenei zuzeneko laguntza eman behar zaiela, eta zaurituei arreta egin, lehenengo eta behin, pertsonal sanitariorik ezean.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 03	
	NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN AURREAN?	Ekainak 2005	38.Orr.

Larrialdiren baten aurrean bagaude, alegia, zenbait zauritu eragin dituen istripu baten aurrean, lehenengo eta behin, begiratu bat egin behar zaie zaurituei, eta okerren daudenak bilatu (arnasarik hartzen ez dutenak, konorterik gabe daudenak,...)

Zauriturik larrienak aurkitu ondoren, kontuz ibili behar dugu, baina, era berean, erabakitasunez.

Inoiz ez dugu zauritu bat mugitu behar zer lesio edo kalte duen jakin gabe. Biktimarentzako arriskua hur-hurrekoa denean bakarrik aztertuko dugu mugitzeko aukera hori; adibidez, ibilgailuren batek zapaltzeko arriskua dagoenean, ibilgailuak igarotzen diren toki batean dagoelako.

Anbulantzia eta zerbitzu medikoak agertu arte itxaron behar dugu, zauritua zentro mediko hurbilenera eraman dezaten.

Zauritua behar ez bezala mugitzen eta eramaten badugu, kalte larriak eta ondorio txarrak eragiteko arriskua dago.


Inoiz ez diogu urik edo beste edozein likidorik emango zaurituari. Batez ere, buruan, lepoan edo saman, bularraldean eta sabelaldean baditu zauriak; izan ere, likidoa behar ez den lekutik joan daiteke, eta/edo aspirazioa eragin, zaurituak oka egiten badu konorterik gabe dagoela.

3.2.2 GAIXOTASUNAREN ONDORIOZKO LARRIALDI MEDIKOA GERTATUZ GERO

Ikastetxeko langileren baten gaixotasunaren ondoriozko larrialdirik gertatuz gero, istripuaren ondoriozko larrialdirako adierazi ditugun protokolo berberei jarraituko diegu.

Betiere, **B. A. L.** (babestu, abisua eman eta lagundu) urratsen garrantzia izan behar dugu gogoan, eta, laburbilduz, hauxe egin behar da, lehenengo eta behin: larrialdi-zerbitzura **(112)** deitu, **eta ambulantzia eta zerbitzu medikoak agertu arte itxarotea, zauritua zentro mediko hurbilenera eraman dezaten.**

Larrialdia lan-istripuztat kataloga daitekeen egoera baten ondorio bada, jakinarazi egin behar da gero, eta langilea Gizarte Segurantzako zer erregimenetakoa den (Erregimen Orokorra edo MUFACE), horren arabera jokatu. Ondoren garatuko dugu jakinarazteko eta laguntza eskatzeko prozedura hori.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.) NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN AURREAN?	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 03	
		Ekainak 2005	39.Orr.

3.2.3 ISTRIPUAREN EDO GAIXOTASUNAREN ONDORIOZKO JARDUERA MEDIKOA (PREMIA LARRIKOA EZ BADA)

Ikastetxeko langileen istripuak edo gaixotasunak halako larritasunik ez badu, eta presako arreta sanitariorik behar ez badu, ondoko galdera egin behar dugu, osasun-etxeren batera eraman aurretik.

Zer segurantza- edo asistentzia-mota du ikastetxeko langileak?

Ikastetxeko langileak MUFACEn (Estatuaren Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitatea) edo GSINen (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala) egon daitezke, zer administrazio-egoera duten. Asistentzia edo laguntzaren tramitazioa eta istripuaren jakinarazpena desberdinak dira bi talde horietan.

A) GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMENARI ATXIKIAK (GSIN)

Erregimen horri atxikitutako langileek, **gaixotasuna edo istripu arruntik** badute, OSAKIDETZAKo osasun-zentro batera joko dute.

Asistentzia edo laguntza **lan-istripu** baten ondorioz eskatzen bada, langileak bere istripu-mutualitateak itundutako klinikara joko du.

Istripuetarako **osasun-laguntzako parte**a (Ordezkaritzetan daude halakoak) ahalik eta lasterren bidaliko osasun-etxera. Gehenez ere, 5 eguneko epearen barruan aurkeztu beharko da.

(Ezinbestekoa da baja- eta alta-agiria emateko, eta langileari asistentzia ematen jarraitzeko)

PARTE DE ASISTENCIA SANITARIA OSASUN-LAGUNTZAKO PARTEA

Copia para el centro sanitario (adjuntar a la factura)
Erietxearentzako kopia (fakturari erantsi)

El portador de este Parte de Asistencia está protegido por en caso de Accidente de Trabajo-Enfermedad Profesional, por lo que les rogamos le presten la debida asistencia sanitaria. En caso de URGENCIA este Parte podrá ser presentado por la empresa posteriormente a la asistencia, a la mayor brevedad. INFORMACION: CLINICA ; Tel.: ; Fax:

Laguntza-parte honen eramailea babestua dago Laneko Istripu edo Gaixotasun Profesionaleko kasuetan, eta horregatik, emaitzue, mesedez behar duen osasun-laguntza. LARRIALDIKO kasuan, Parte hau aurkeztu ahal izango du enpresak laguntza eman ondoren ere, ahalik eta lasterren. INFORMAZIOA: KLINIKA, Tel.: ; Faxa:


TRABAJADOR/A Nombre y Apellidos LANGILEA Izen abizenak					
Nº Afil. Afil. Zk.				FECHA DE LA ASISTENCIA LAGUNTZAREN DATA	
EMPRESA ENPRESA				C.C.C. K.K.K.	
FECHA ACCIDENTE ISTRIPUAREN DATA		HORA ACCID. ISTRIP. ORDUA		TAREA LANA	

Fecha y sello de la empresa / Enpresaren zigilua eta data

A CUMPLIMENTAR POR EL FACULTATIVO / MEDIKUAK BETE BEHARREKOA

El trabajador presenta las siguientes lesiones /
Langileak honako lesio hauek dauzka: _____

Por lo que en el día de hoy SI/NO deberá incorporarse a su puesto / Horreetatik aurr lanera itzuli beharko du: BAI/EZ _____

 <p>Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 03	
	NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN AURREAN?	Ekainak 2005	40.Orr.


GSINeko afiliatua izanik, lan-istripua dela eta beste ospitaleren batera joz gero, jakin ezazu osasun laguntza kobratu egingo dizutela, eta ezingo dizutela lan-istripuari dagokion baja-agiririk eman; beraz, berehala jakinarazi beharko dizkiozu Mutualitateari bere mendeko ez den osasun-zentro horretara jotzeko izan dituzun arrazoiak eta inguruabarrak. Mutualitateak bere gain hartuko du gorabehera horren guztiaren kostua, ezarritako arauetara lotzen zaiola iristen badio.

Istripua gertatu den ikastetxeko zuzendaritzak, bere aldetik, txosten ahalik eta zehatzena egingo du istripua nola eta noiz gertatu den azaltzeko, eta ondoko tokietara bidaliko du: Hezkuntzako dagokion Lurralde Ordezkaritzara, Gizarte Segurantzako Zerbitzura, baita Zerbitzu Medikora ere, baje jarraipena egin dezan. Era berean, txostenaren kopia bat gordeko du ikastetxean.

B) LEHEN HEZKUNTZAKO ERLIJIO-IRAKASLEEN KASU BEREZIA.

Lehen Hezkuntzako Erlijio-irakasleei, MECDren (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa) mendeko direnez, FREMAP mutua egokitu zaie, istripurik gertatuz gero laguntza emateko; hortaz, mutualitate horrek itundutako asistentzia-zentroren batera bidali beharko dira.

FREMAPek, hala bere web orrian, nola bere mutualistetzako informazio-txartelean, telefono-zenbaki bat erakusten du, mutualistei dagokien asistentzia-zentroa zein den jakiteko. Gainera, istripurik gertatuz gero jarraitu beharrekoa protokoloa, kolektibo horri aplikatzen zaiona, helarazi zaie ikastetxeei.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 03	
	NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN AURREAN?	Ekainak 2005	41.Orr.

(Kopia da)

HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA

IDAZKARIORETZA PROGRAMAZIO EKONOMIKO, PERTSONAL ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZA OROKORRA.

LAN-ISTRIPUAK JAKINARAZTEKO PROZEDURA.

TAS/2926/2002 Agindua 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jartzearen ondorioz, legezko betebeharrak dago istripuak prozedura elektronikoak baliatuz baino ez jakinarazteko, eta gaur egun erabiltzen diren paperezko ereduak deuseztaturik geratu dira.


Ministerio bakoitzean Lan Ministeriorako sinadura elektronikoa duen pertsonari egokitu zaionez jakinarazpen hori egitea, lan-istripuei buruzko informazio guztia harengan zentralizatu behar da.

Horretarako, lan-istripuak jakinarazteko ondoko barne-prozedura prestatu da MECDn.

ZENTRO HONETAN LANEAN DIHARDUEN ETA ESPAINIAKO GIZARTE
SEGURANTZAREN ERREGIMEN OROKORRARI ATXIKITA DAGOEN LANGILE
PUBLIKOREN BATEK LAN-ISTRIPURIK IZANEZ GERO (MEDIKU-BAJAREKIN ZEIN
GABE), ONDOREN AZALTZEN DIRENAK EGIN BEHARKO DIRA

ZER BIDALI BEHAR DUT?

- Istripua izan duen langilearen izen-deiturak, jaiotze-data, helbidea eta telefonoa.
- NAN eta Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia.
- Kategoria eta lanpostua.
- Lantokia, helbidea eta telefonoa.
- Istripuaren eguna, istripuaren tokia, istripuaren ordua eta istripua nola gertatu den zehaztea.
- Lesioaren deskribapena, gorputzaren zer ataletan izan den, eta diagnostikoa, ezaguna bada.
- Mediku-bajaren data, halakorik gertatu bada.
- Lehen asistentzia medikoa eman dion zentroa.
- Asistentzia eman dion FREMAP zentroa.
- Lekukorik bada: horien izena, helbidea eta telefonoa.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 03	
	NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN AURREAN?	Ekainak 2005	42.Orr.

NORK BIDALI BEHAR DU?

Istripua zer lantokitan gertatu den, hango arduradunak, edo arduradun horrek eskuordetuak.

NOLA BIDALI BEHAR DUT?

I. eranskinean ageri den eredia betez, eta posta elektronikoz edo fax-ez bidaliz.

NORA?

- MECDren Gizarte Segurantzako Sekziora, FAX zenbakiak: 91.701.73.51 – 91.701.73.31, edo helbide elektronikoko honetara: mercedes.chaparro@dgps.mcu.es
- Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzura, Fax-zenbakia: 91.701.73.65, edo helbide elektronikoko honetara: mjose.sanchez@dgps.mcu.es
- Prebentzio Zerbitzura, telefonoz eta presaz, 91.701.73.67 zenbakira deituz, honako kasu hauetan: istripu larria, oso larria, heriotza, edo lau langile baino gehiagori eragiten badie, larritasuna eta langileak lan-zentrokoak badira gorabehera.

NOIZ?

Istripua gertatu eta berehala, istripua jasan duenari laguntza eman eta gero. Mediku-bajaren dataren hurrengo 5 egun baliodunetan izapidetu behar du MECDK parte.



Lan Arriskuaren
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANeko ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN
AURREAN?

PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 03

Ekainak 2005


43.Orr.

I. eranskina LAN-ISTRIPUEN JAKINARAZPENA.

ISTRIPUA IZAN DUENAREN DATUAK						
Izen-deiturak						
Gizarte Segurantzako zk.						
Jaiotze-data						
NAN						
Lanpostua						
Helbidea						
Telefonoa						
ISTRIPUAREN DATUAK						
Istripuaren eguna		Istripuaren ordua		Lan-ordua		
Istripuaren tokia	Ohiko lantokia					
	Beste lantoki batzuk					
	Lanaldiaren barruko joan-etorria					
		Lanera joatean edo lanetik bueltan		Trafiko-istripua		
Helbidea (kalea, bidea, Km, eta abar.)						
Istripuaren deskribapena						
LESIOARI ETA ASISTENTZIARI BURUZKO DATUAK						
Lesioa jasan duen gorputz-atala						
Diagnostikoa						
Lesioaren deskribapena						
Bajarik?		EZ		BAI	DATA	
Lehen asistentzia medikoa zer zentrotan hartu duen			Anbulatorioko asistentzia			
			Ospitaleko asistentzia		Ospitaleratzea	
Zentro medikoaren helbidea eta telefonoa						
Lekukorik izatekotan : horien izena, helbidea eta telefonoa						

Kargua, data eta sinadura.

.....

 <p>Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 03	
	NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN AURREAN?	Ekainak 2005	45.Orr.

4 ERREFERENTZI-DOKUMENTUAK

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa.
- Prebentzio Zerbitzuen Araudia.
- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra
- 1/1994 Errege Dekretu Legegilea, ekainaren 20koa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartu duena.
- 1993/1995 ED, Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitateen lankidetzari buruzko Araudia onartzen duena.
- 576/1997 ED, apirilaren 18koa, abenduaren 8ko 1993/1995 Errege Dekretua aldatzen duena. Azken Errege Dekretu hori Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitateak kudeaketan lankidetzan aritzeari buruzkoa da.
- 1997ko apirilaren 22ko Agindua, Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitateen funtzionamenduaren erregimena arautzen duena, laneko arriskuen prebentzio-jardueren garapenari dagokionez.



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

NOLA JOKATU ISTRIPU BATEN
AURREAN?


PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 03

Ekainak 2005

46.Orr.

5 FLUJOGRAMA



* OSAKIDETZA, MUTUAKO ERITETXEA ETA MUFACEREN TELEFONOAK
<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-3374/es/> ORRIAN AURKI DAITEZKE



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua


IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

PROZEDUREN
ESKULIBURUA
AZALA P.K.P 04

Ekainak 2005

47.Orr.

EROSKETEN KONTROLARAKO PROZEDURA

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		AZALA P.K.P 04	
		Ekainak 2005	49.Orr.

ÍNDICE

1 HELBURUA

2 APLIKAZIO-EREMUA

3 GARAPENA

3.1 DEFINIZIOAK

3.2 JARDUTEKO PROZEDURA

3.2.1 PRODUKTUAK EROSTEA

3.2.2 MAKINERIA EROSTEA


3.2.3 ZERBITZUAK EROSTEA

3.2.4 BESTE BATZUK

4 ERREGISTROAK

- A ERANSKINA: SEGURTASUN-DATUEN ORRIA ESKATZEKO GUTUN-EREDUA..
- B ERANSKINA: PRODUKTUAREN ARRISKU-FITXA.
- C ERANSKINA: PRODUKTU ARISKUTSUEN INBENTARIOA.
- D ERANSKINA: MAKINEN INBENTARIOA.

5 ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK (Ez da zerrenda zehatza)

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 04	
	EROSKETEN KONTROLARAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	51.Orr.

1 HELBURUA

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUAN ezarritako helburuak betez, prozedura honen helburua da produktuak, makinak, zerbitzuak eta beste batzuk eskuratzetik etor daitezkeen arriskuak ezagutzeko modua finkatzea, arrisku horiek saihestu, edo bestela, kontrolatzeko.

2 APLIKAZIO-EREMUA

Ikastetxeak eskatzen duen erosketa orori aplikatuko zaio prozedura hau.

Ikastetxeak 12000 € bitarteko autonomia ekonomikoa du.

3 GARAPENA

3.1 DEFINIZIOAK


PRODUKTU: Halakotzat joko da ikastetxeko zeregin eta jardueratan maneiatu edo erabiltzen den material oro, dela lehengai, tarteko produktu, laguntza-produktu, etab.

MAKINERIA: Makineria edo makinatzat joko da elkarrekin lotutako pieza edo organoen multzoa —horietako batek, gutxienez, mugikorra izan behar du—, eragite-organoak, aginte- eta potentzia-zirkuituak, eta beste batzuk barne direla, osagaiak solidarioki elkartuta dituen aplikazio jakin baterako; batez ere, materiala eraldatzeko, tratatzeko, batetik bestera mugitzeko eta egokitzeko. Makinatzat joko da, orobat, makina-multzo bat, makinok helburu berera heltzarren solidarioki funtzionatzeko atonduta eta eraginda baldin badaude.

Makinatzat joko da, halaber, makina baten funtzioa aldatzen duen ekipo trukagarria, operadoreak makina bati, makina sail bati edo traktore bati itsats diezaion merkaturatzen dena, ekipo hori ordeztu pieza edo erreminta ez bada.

ZERBITZU: Halakotzat joko da ikastetxeaz kanpoko langileek, horretarako kontratatuek, ikastetxeko instalazioetan egindako edozein lan, beraien baliabideak zein ikastetxeak emanak erabilia.

BESTE BATZUK: Halakotzat joko dira ikastetxeko berezko elementu batzuk, aurreko definizioetan nekez sartzen direnak, hala nola, umeentzako jolas-parkeak, kirol-materiala...

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 04	
	EROSKETEN KONTROLARAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	52.Orr.

3.2 JARDUTEKO PROZEDURA

Produktu, makineria, zerbitzu edo beste batzuk deritzon horietako bat eskuratu behar denean, ikastetxeak erosketetarako ezarrita dituen metodoak erabiliko dira. Prozedura honek gaineratu nahi duena da eskuratu edo erosten den guztiaren arriskua ikusi beharra, arrisku hori saihestu edo kontrolatzeko.

P.K.P. 04an EROSKETETARAKO PROZEDURAREN LABURPENA aurki daiteke

3.2.1 PRODUKTUAK EROSTEA

Produktu berria erosi behar denean, eskatzaileak hornitzaileari informazioa eskatuko dio A eranskinak jasotzen dituen ezaugarriei buruz. Eranskin horrek, hain zuzen ere, datu horiek emateko betebeharra ezarri dio hornitzaileari. Informazio hori Fabrikatzailearen Segurtasun-datuen Orria izeneko dokumentuan jasotzen da.


Produktuak probatzeko edo antzekoetarako sartzen badira, aurretik erosketabaimena izanik, eskaria egin eta sartzeko baimena ematen duena arduratuko da datuen orria hornitzaileari eskatzeaz.

A eranskinean gutun-eredu bat ageri da, eta erosketa-sailak edo produktua eskatzen duenak hornitzaileari helarazi beharko diote hori.

Erosketa-sailak edo produktua eskatzen duenak zuzendaritza-taldeari / segurtasun-laguntzaileari helaraziko diote informazio hori.

Jasotako informazio horrekin, zuzendaritza-taldeak / segurtasun-laguntzaileak, Produktuaren Arrisku Fitxa (B eranskina) egingo du, lanpostuetan erabil dadin eta C eranskinean erregistratuko du: Produktu arriskugarrien inbentarioa Ez da produktu arriskutsu berririk erosiko behar bezala ontziratutik eta etiketatutik ez badago, legeriak eskaturikoaren arabera, eta aurretik eman ez bada gorago esandako informazioa, segurtasun-datuen fitxa egin ahal izan dadin, ondokoak bermatzearen: bertako langileek edo kontratatutako pertsonak egoki maneiatuko dutela, eta horretarako propio jarritako tokietan biltegitratuko direla, baldintza seguruetan.

Urtebeteko epea jarri da informazioa biltzeko egun ikastetxean erabiltzen diren produktu arriskutsuei buruz. Epe horretan hornitzailearen batek ez badu eskatu zaion daturik ematen, beste hornitzaile bat hartuko da.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 04	
	EROSKETEN KONTROLARAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	53.Orr.

Urtero, Prebentzioari buruzko Urteko Planaren barruan, helburuak ezarriko dira, zenbat “Produktuaren Arrisku Fitxa” egin edo berrikusiko den eta hori gauzatzeko arduradunak zehazteko.

Produktu bat toxikotzat edo arriskutsutzat sailkatu dela jakiten den unetik bertatik, ez zaio bertako edo kontrataturiko inori utziko produktu hori erabiltzen, lehenago Arduradunen batek argibiderik eman ez badio erabili beharreko produktuaren arrisku eta arretei buruz. Horretarako, Produktuaren Arrisku Fitxa hartuko da kontuan. Fitxa hori egin gabe badago oraindik, zuzendaritza-taldeak / segurtasun-laguntzaileak Arduradunari eskuratuko dio Fabrikatzailearen Segurtasun-datuen Orria.

3.2.2 MAKINERIA EROSTEA

Jarraian deskribatzen diren pausoak makinak edo ekipoak erosteari dagozkio, baldin eta fabrikatzaileak edo hornitzaileak CE markarekin egiaztatu behar baldin baditu.

A) EZAUGARRIAK ZEHAZTEA.

Eskatzaileak **D Eranskinean** jasoko ditu makinak eta/edo hornitzaileak bete behar dituen baldintza eta zehaztapen guztiak.


Eranskinean ageri bezala, beti-beti sartuko da ondokoan eskaria: adostasun-adierazpena, “CE” marka eta erabilera-eskuliburua.

B) ERABILTZEKO ARAUAK EGITEA: JARRAIBIDEAK, PROZEDURAK ETA ABAR

Makina behin betiko abiarazi aurretik, hornitzailearen erabilera-eskuliburua kontuan hartuta eta dagozkion sailen laguntzarekin (Kalitatea, Mantentzea eta Prebentzioa), ezinbestekoa da makina erabiliko dutenentzako barne-jarraibide egokiak prestatzea.

C) ERABILTZAILEEN PRESTAKUNTZA.

Prestakuntza-prozedurak eta Lan-arauek eta -prozedurek ezarri dutenaren ildotik, erabiltzaileek prestakuntza jaso behar dute, ondokoak kontuan hartuta: makina berriaren erabilera, hondar-arriskuak eta hartu beharreko prestakuntza-neurriak, nahitaezko eta gomendaturiko babes-jantziak barne direla.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 04	
	EROSKETEN KONTROLARAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	54.Orr.

D) MANTENTZE-PLANA EGIN ETA BURUTZEA. IKASTETXEKO MANTENTZE-PLANEAN TXERTATZEA.

Hornitzailearen jarraibideak erabilita, Mantentze-sailari informazioa emango zaio, makinaren alderdi jakin batzuk sar ditzan **ikastetxearen Prebentzio Mantentzearen Zerrendan**.

Alorreko arduradunak, mantentze-arduradunak eta segurtasun-laguntzaileak definituko dituzte, hala badagokio, egoki iritzitako alderdiak; esate baterako, makina-erabiltzaileek makina erabiltzen hasi aurretik egin beharreko txekoak.

3.2.3 ZERBITZUAK EROSTEA

Zerbitzuok, esandakoaren arabera, Ikastetxeaz kanpoko langileek, horretarako propio kontratatuek, emango dituztenez, segurtasun-kontrolak ondokoari egokituko zaizkio: Hezkuntza Sailaren edo ikastetxearen titulartasuna duen entearen (udalak) Kontrata Kontroleko Prozedurak ezarritakoari.


3.2.4 BESTE BATZUK

A) JOSTAILUAK EDO HORIEN ANTZEKO KIROL- MATERIALAK

Jostailutzat joko da produktu oro, baldin eta 14 urtetik beherako haurrak jolasean ibil daitezzen asmatua badago, edo argi eta garbi horretarako bada. Jostailuen barruan sar daitezke, eskolaurrean erabili eta guztiok halakotzat ditugunez gain, gorputz-hezkuntzako eskoletako jardueretan erabil daitezkeen artikuluak (baloiak, eraztun edo zirrindolak, patinak, uztaiak eta abar, eta abar) CE markak nahitaez agertu behar du jostailuan bertan edo bilgarrian inprimaturik, 880/90 EDren II. eranskinak eta 204/95 EDk (aldaketak) ezarri dutena betez, betiere.

B) HAUR-PARKEAK

Testu honen xedea da arautzea haur-parkeen erosketa, instalazioa eta mantentzea, umeen jolasak behar bezala garatuko direla bermatzeko, haurren osasuna eta osotasun fisikoa kaltetu dezaketen arriskuak saihestuz. Haur-parketzat joko dira kanpoan, atari zabalean, dauden gunek, haurrak jolasean ibiltzeko ekipamendu berezia dutenak, hala nola, zabuak, txirristak, tirolinak, karruselak, kulunkak, eta aurrekoekin batera doazen egiturak, eta arau espezifikorik ez dutenak (kirol-instalazioek badute, esate baterako).

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 04	
	EROSKETEN KONTROLARAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	55.Orr.

Haur-parkeetan jolas-eremu desberdinak izan daitezke, adin-tarteen arabera banatuak.

Adin nagusikoek ezin izango dute erabili haur-parkeetako jolas-elementurik.

Elementu horien segurtasun-neurriak ondoko arauetan daude:

- Euskal Autonomia Erkidegoko 175/83 Dekretua.
- UNE 1176. (1-2-3-4-5-6-7)
- UNE 1177.

Arau horiek guztiak definitu dituzte bai haur-parkeen elementuak, bai haur-parkeetako zorua edo lurra.

Aurrekoa betez, ondoko dokumentazioa eskatuko dugu:

- Dagokion araua bete izanaren ziurtagiria.
- Elementuaren markaketa (araua eta urtea)
Adibidez: EN 1176-2:1998
- Eskuliburua (instalazio- eta funtzionamendu-jarraibideak, erabiltzaileen adina, mantentzea...), estatuko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan.

Oharra: EN hori betetzea edo gordetzea ez da nahikoa izaten, puntu batzuetan, legeak eskaturikoa betetzeko.


C) JOKATZEKO EKIPOAK ETA JOKALEKUAK

Ondokoak erosi behar direnean aplikatuko da: ate edo porteriak, jokoetarako sareak, saskiak eta zoruak, baita horiek instalatu eta mantentzean ere.

Jolas edo joko bakoitzari aplikatzen zaion EN araua ezarriko da (Adibidez : EN 748 Futbola. EN 749 Eskubaloia. EN 1270 Saskibaloia). Beste edozein kiroletarako, Prebentzio Zerbitzura jo, hark adieraziko du-eta zer arau aplikatu behar den

Ondoko dokumentazioa eskatuko da:

- Jarraibideen eskuliburua, instalazio (muntatze), funtzionamendu eta mantentzeari buruzkoa, estatuko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan idatzia.
- Markaketa, ondoko hauekin: araua (adib., EN 749), fabrikatzailearen edo inportatzailearen izena, fabrikazio-urtea, eta ohartarazteko etiketatua (erabilera, mugak, debekuak).

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 04	
	EROSKETEN KONTROLARAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	56.Orr.

4 ERREGISTROAK

- A ERANSKINA: SEGURTASUN-DATUEN ORRIA ESKATZEKO GUTUN-EREDUA.
- B ERANSKINA: PRODUKTUAREN ARRISKU-FITXA.
- C ERANSKINA: PRODUKTU ARRISKUTSUEN INBENTARIOA.
- D ERANSKINA: MAKINEN INBENTARIOA.

Zerrendaturiko jarduera bakoitzari dagozkion erregistroak edukiko dira. Horra:


PRODUKTUAK

- Fabrikatzailearen segurtasun-datuen orrien artxiboa.
- Arrisku-fitxen artxiboa.

MAKINERIA

Honako hauek edukiko dira erositako makina edo instalazio bakoitzarentzako:

- Baldintza-agirien artxiboa.
- CE Adostasun-aitorpenaren eta espediente teknikoaren artxiboa.
- Segurtasun-baldintzen txekioen artxiboa (txekeorik egin bada).

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 04	
	EROSKETEN KONTROLARAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	57.Orr.

5 ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK (EZ DA ZERRENDA ZEHATZA)

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea (31/1995 Legea, azaroaren 8koa. BOE, 85-11-10)
- 1495/1986 Errege Dekretua, Makinen Segurtasunari buruzko Araudia onartzen duena.
- 1435/1992 Errege Dekretua, Kontseiluaren 89/392/CEE Zuzentaraua, makinei buruzkoa, aplikatzeko dena.
- 56/1995 Errege Dekretua, 1435/92 ED aldatzen duena.
- 485/1997 Errege Dekretua. Laneko segurtasun eta osasuneko seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak.
- 2443/69 Dekretua. Presioko ontziei buruzko Araudia eta haren aldaketak.
- 486/1997 Errege Dekretua. Lantokietako segurtasun eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak.
- 7/1988 Errege Dekretua. Tentsio-muga jakin batzuen barruan erabili beharreko material elektrikoaren segurtasun-betekizunak.



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

EROSKETEN KONTROLARAKO
PROZEDURA

PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 04

Ekainak 2005

58.Orr.

P.K.P. 02 EROSKETETARAKO PROZEDURA - LABURPENA
(IKASTETXEK 12000 €BITARTEKO AUTONOMIA DUTE)

IZENA.	DEFINIZIOA.	APLIKATZEKO ARAUAK EDO SAILAK GOMENDATZEN DITUENAK.	BETEBEHARRA.
PRODUKTU KIMIKOAK.	Ikastetxeko prozesu eta zereginetan maneiatu edo erabiltzen den substantzia edo konposatu kimiko oro. Adib.: garbiketarako produktuak (ikastetxean, sukaldean edo makinetan erabiliak), laborategiko materiala, kolpea, taladrinak, eta abar.	2443/36 ED , 363/95 ED, 99/03 ED eta 255/03 ED Ontziratzea eta etiketatzea	Segurtasun-datuuen Orria (FDS) eskatu Ondokoak jasoko dira orri horretan, dagokion estatuaren hizkuntza ofizialean edo ofizialetan. - Substantziaren identifikazioa eta hura merkaturatzeko ardura duenarena. - Osaera/osagaiei buruzko informazioa - Arriskuen identifikazioa. - Lehen sorospenak. - Suteei aurre egiteko neurriak. - Hartu beharreko neurriak, nahigabeko isurketa gertatuz gero. - Manipulazioa, biltegiatzea. - Esposizio kontrolak/norberaren babesa. - Ezaugarri fisikoak eta kimikoak. - Egonkortasuna eta erreaktibotasuna - Informazio toxikologikoak. - Informazio ekologikoak. - Deuseztatzeari buruzkoak. - Garraioari buruzko informazioa. - Arauzko informazioak.
MÁKINAK.	Makineria edo makinatzen joko da elkarrekin lotutako pieza edo organoen multzoa, horietako batek gutxienez mugikorra izan behar duena.	1215/97 ED, gutxieneko xedapenak 1495/86 ED, makinaren segurtasuna. 1435/92 ED, makinei buruzko CE Zuzentaraua. 56/95 ED. Aldaketak.	- CE markaketa. (ikusteko moduan) - CE adostasun-adierazpena. - Jarraibideen eskuliburua, instalazio, funtzionamendu eta mantentzeari buruzkoa, estatuko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan idatzia .
HAUR- PARKEAK.	Halakotzat jotzen dira zabuak, txirristak, tirolinak, karruselak, kulunkak, eta aurrekoekin batera doazen egiturak.	175/83 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegokoa. 486/97 ED, I. eranskina, Lantokiak. UNE 1176. (1-2-3-4-5-6-7) eta UNE 1177. Horiek guztiak definitzen dituzte bai haur-parkeen elementuak, bai parke horien zoru-azaleraren ezaugarriak.	- Dagokion araua bete izanaren ziurtagiria. - Elementuaren markaketa (araua eta urtea) Adib.: EN 1176-2:1998 - Eskuliburua (instalazio- eta funtzionamendu-jarraibideak, erabiltzaileen adina, mantentzea...), estatuko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan . Oharra: EN hori betetzea edo gordetzea ez da nahikoa izaten 175/83 Dekretuaren punturen bat betetzeko.
JOKATZEKO EKIPOAK ETA JOKALEKUAK.	Ondokoak ditu xede: ate edo porteriak, jokoetarako sareak, saskiak eta zoruak .	486/97 ED, I. eranskina Lantokiak. 68/2000 ED, Irisgarritasunari buruzko arauak EN 748 Futbola. EN 749 Eskubaloia. EN 1270 Saskibaloia. EN 1271 Boleibola. EN 1510 Tenisa.	- Jarraibideen eskuliburua, instalazio (muntatze), funtzionamendu eta mantentzeari buruzkoa, estatuko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan idatzia. - Markaketa, ondoko hauekin: araua (adib., EN 749), fabrikatzailearen edo inportatzailearen izena, fabrikazio-urtea, eta ohartarazteko etiketatua (erabilera, mugak, debekuak).
IZENA.	DEFINIZIOA.	APLIKATZEKO ARAUAK EDO SAILAK GOMENDATZEN DITUENAK	BETEBEHARRA.
JOSTAILUAK	Jostailutzat joko da produktu oro, baldin eta 14 urtetik beherako haurrak jolasean ibil daitezen asmatua bada, edo argi eta garbi horretarako bada. Oharra: Jostailuen barruan sar daitezke, eskolaurtean erabili eta guztiok halakotzat ditugunez gain, gorputz-hezakuntzako eskoletako jardueretan erabili daitezkeen artikuluak (baloiak, eraztun edo zirindolak, patinak, uztaiak eta abar, eta abar)	10/81 Legea, EAEko Kontsumitzaileen Estatutua 880/1990 ED Jostailuen segurtasun-arauak. 204/95 ED Aldaketak. 44/96 ED Produktuen segurtasuna UNE-EN 71/1 Jostailuen segurtasuna	- CE markak nahitaez agertu behar du jostailuan bertan edo bilgarrian inprimaturik .



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

EROSKETEN KONTROLARAKO
PROZEDURA


PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 04

Ekainak 2005

59.Orr.

IZENA.	DEFINIZIOA.	APLIKATZEKO ARAUAK EDO SAILAK GOMENDATZEN DITUENAK	BETEBEHARRA.
NBEak (Norbera babesteko ekipamenduak)	Norbera babesteko ekipamendua» edozein ekipamendu, langileak eraman edo eutsi behar duena, bere segurtasun edo osasuna mehatxa dezaketen arrisku batetik edo batzuetatik babesteko; baita helburu bererako edozein osagarri edo eranskin ere.	773/1997 ED Norbera babesteko ekipoen erabilerari lotutako segurtasun eta osasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa. 1407/92 ED (BOE 28/12/92) 16/05/94 MA (BOE 1/6/94) 159/95 ED (BOE 8/3/95) 20/2/97 MA (BOE 6/3/97)	- CE marka eskatu beharko da, eta fabrikatutako NBE bakoitzak eraman beharko du, argi ikusteko eta irakurtzeko moduan, ezabatu ezin dela, NBEari aurreikusi zaion iraupen edo bizitza baliagarri guztian zehar; hala ere, produktuaren ezaugarriak kontuan hartuta, aurrekoa ezinezkoa balitz CE marka enbalajearen ere jarri ahal izango da. - Gainera, informazio-liburuxka ere eman beharko da, ezaugarri, erabilera eta mantentzeari buruzko garrantzizko datu guztiekin. - Informazio-iburuxka hori zehatz eta ulertzeko moduan egongo da idatzita, eta dagokion estatu kidearen hizkuntza ofizialean edo ofizialetan, gutxienez.
- ETXETRESNAK - ERREMINTA ERAMANGARRIAK ETA ANTZEKO EKIPOAK. - EKIPO INFORMATIKO ETA PERIFERIKOAK. - LUMINARIAK - PAPER, IRRATI, TELEBISTA, BIDEO ETA DVD HARGAILU, ERREPRODUZIGAILU ETA TRANSMISORE DOMESTIKOAK.		1215/97 ED, gutxieneko xedapenak. 1495/86 ED, Makinen segurtasuna. 1435/92 ED, makinen zuzentaraua (EE). 56/95 ED, Aldaketak. 444/94 ED, 1950/95 ED eta 26/3/96 MA, Bateragarritasun Elektromagnetikoari buruzkoa. 7/88 ED, 6/6/89 MA, 773/97 ED eta EN 60335-1 eta 2, Material Elektrokoaren Eskakizunei buruzkoa.	- CE markaketa. (ikusteko moduan, bai aparailuan, bai bilgarri edo enbalajearen). - Jarraibideen eskuliburua, instalazio (muntatze), funtzionamendu eta mantentzeari buruzkoa, estatuko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan idatzia. Eta gainera - Enpresaren identifikazioa. - Modeloa edo tipo-erreferentzia. - Korrontearen izaeraren ezaugarria. - Tentsio izendatua v-etan, potentzia izendatua W-etan eta frekuentzia izendatua edo frekuentzien gama izendatua Hz-etan.

 <p>Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 04	
	EROSKETEN KONTROLARAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	60.Orr.

A ERANSKINA

Segurtasun-datuen Orria eskatzeko gutun-eredua

Kontuan hartuta 363/1995 Errege Dekretua —sustantzia berrien jakinarazpena eta sustantzia arriskutsuen sailkapena, ontziratzea eta etiketatzea arautzen duena—, gutun honen bitartez eskatzen dizugu honako hau bidal diezaguzula, bidezko bada: **Segurtasun-datuen orria**, goian esandako dekretuak onetsitako Araudiaren 23. artikuluan aipatzen dena, **eskuratu ohi dizkiguzun produktuei buruzkoa**.

Datu-orri horrek ondoko epigrafeak jasoko ditu nahitaez, Estatuko hizkuntza espainiar ofizialen batean idatziak:

- a) Substantziaren identifikazioa eta hura merkaturatzeko ardura duenarena.
- b) Osaera/osagaiei buruzko informazioa.
- c) Arriskuen identifikazioa.
- d) Lehen sorospenak.
- e) Suteei aurre egiteko neurriak.
- f) Hartu beharreko neurriak, nahigabeko isurketa gertatuz gero.
- g) Manipulazioa, biltegiatzea.
- h) Esposizio kontrolak/norberaren babesa.
- i) Ezaugarri fisikoak eta kimikoak.
- j) Egonkortasuna eta erreaktibotasuna.
- k) Informazio toxikologikoak.
- l) Informazio ekologikoak.
- m) Deuseztatzeari buruzkoak.
- n) Garraioari buruzko informazioa.
- o) Arauzko informazioa.
- p) Bestelako informazioa.

BEGIRUNEZ



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

EROSKETEN KONTROLARAKO
PROZEDURA







PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 04

Ekainak 2005

61.Orr.

B ERANSKINA

PRODUKTUAREN ARRISKU-FITXA		
PRODUKTUAREN IZENA	PRODUKTU-KODEA	INGURUNE-KONTZENTRAZIO ONARGARRIA ppm mg/m ³
A R R I S K U B I D E A K	 LEHERGARRIAK	
	 OSO SUKIOIAK	
	 ERREKARIAK	
	 TOXIKOAK	
	 KARRUSKAGARRIAK	
	 KALTEGARRIAK	
BABES- BALIABIDEAK		
ISTRIPURIK GERTATUZ GERO		
HAU GERTATUZ GERO	HAU EGIN	
IHESA EDO ISURKETA		
SUTEA		
L. S O R O S P E N A K	BEGIAK	
	LARRUA	
	INHALATZEA	
	IRENSTEA	



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)


PROZEDUREN
ESKULIBURUA

AZALA P.K.P 05

Ekainak 2005

65.Orr.

**DESINFEKZIO, DESINTSEKTZAIO
ETA DESRATIZAZIORAKO
APLIKAZIOAK (FUMIGAZIOAK)**

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.) DESINFEKZIO, DESINTSEKTAZIO ETA DES RATIZAZIORAKO APLIKAZIOAK (FUMIGAZIOAK)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 05	
		Ekainak 2005	67.Orr.

AURKIBIDEA

- 1 HELBURUA
- 2 GARAPENA
- 3 APLIKAZIOAREN OSTEAN EGIN BEHARREKOA
- 4 OINARRIZKO ARAUAK
- 5 FLUJOGRAMA

1 HELBURUA

Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketa Sistema Bateratuan ezarritako helburuak betez, prozedura honen helburua da jarduteko metodologia definitzea, fumigazioak (D.D.D. Desinfekzioa, Desintsektazioa, Desratizazioa) ahalik eta ondoen kontrolatzeko.

2 GARAPENA

P.K.P. 05 FLUJOGRAMAN prozedura intuitiboki ikus daiteke

Ikastetxeren batean, ikastetxeko komunitatean parte hartu edo kudeaketaz arduratzen den edozeinek fumigazioaren bat egin beharra aurkezten duenean, honako protokoloa aplikatuko da .


Ikastetxeko zuzendaritza fumigazioaren sustatzailearekin harremanetan jarriko da. **Haur edo Lehen Hezkuntzako ikastetxea** bada, dagokion udala izango da sustatzailea, **Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan**, berriz, Hezkuntza Saila Lurralde Ordezkaritzaren bitartez jarriko da harremanetan enpresarekin.

3 APLIKAZIOAREN OSTEAN EGIN BEHARREKOA

Tratamendua egin ostean, fumigazioa burutu duen enpresak Ikastetxeko Zuzendaritzari eta fumigazioaren sustatzaileari egindako tratamenduari buruzko txostena eman beharko die, "Tratamenduaren Egiaztagiri" izenekoa.

4 OINARRIZKO ARAUAK

- 3349/83 ED, plagizidak fabrikatu, merkaturatu eta erabiltzeari buruzko Araudi Tekniko-sanitarioa.
- 93-2-24ko Agindua. Plagizidetarako Establezimendu eta Zerbitzuen Erregistroa.

 <p>Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 05	
	DESINFEKZIO, DESINTSEKTAZIO ETA DESRATIZAZIORAKO APLIKAZIOAK (FUMIGAZIOAK)	Ekainak 2005	68.Orr.

- 94-3-8ko Agindua. Plagizidekin tratamenduak egiteko gaikuntza-ikastaroen homologazioa.
- 90-3-8ko Agindua, EJren Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Izurrikarietako Merkataldegi eta Zerbitzuen Erregistroari buruzkoa.
- 95-2-28ko Agindua, EJren Nekazaritza eta Arrantza, Industria eta Osasun sailburuena, plagizidekin tratamenduak egiteko gaikuntza-ikastaroei buruzkoa.



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

DESINFEKZIO, DESINTSEKTAZIO ETA
DESRRATIZAZIO RAKO APLIKAZIOAK
(FUMIGAZIOAK)


PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 05

Ekainak 2005

69.Orr.

5 FLUJOGRAMA





Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)


PROZEDUREN
ESKULIBURUA

AZALA P.K.P 06

Ekainak 2005

71.Orr.

HONDAKIN EZABATZEKO PROZEDURA

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 06	
	HONDAKIN EZABATZEKO PROZEDURA	Ekainak 2005	73.Orr.

AURKIBIDEA

1 HELBURUA

2 NORAINOKOA

3 GARAPENA

3.1 DEFINIZIOAK

3.2 JARDUTEKO PROZEDURA


A) HIRI HONDAKINA, INERTEA EDO HIRI-HONDAKINTZAT JO
DAITEKEENA

B) HONDAKIN ERRADIAKTIBOAK, ARRISKUTSUAK EDO TA
TOXIKOAK

3.3 JARRAIPENA

4 ERREFERENTZIAKO DOKUMENTUAK

5 FLUJOGRAMA

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 06	
	HONDAKIN EZABATZEKO PROZEDURA	Ekainak 2005	75.Orr.

1 HELBURUA

Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketa Sistema Bateratuan ezarritako helburuak betez, prozedura honen helburua da jarduteko metodologia definitzea, hondakinen deuseztatzea ahalik eta ondoen kontrolatzeko.

2 NORAINOKOA

Hondakinekin zerikusia duten ikastetxeko alor guztiei aplikatzen zaie prozedura hau.

3 GARAPENA

3.1 DEFINIZIOAK

Hondakin

Hondakinei buruzko Legearen (10/1998 LEGEA, apirilaren 21ekoa, Hondakinei buruzkoa. BOE, 96 zk., 1998-4-22) eranskinean (hondakinen kategoriak) jasotako kategoriaren baten barruan dagoen edozein substantzia edo objektu, baldin eta horren edukitzaileak laga nahi badu, edo lagatzeko asmoa edo obligazioa badu. Nolanahi ere, halakotzat joko dira Europako erakundeek onetsitako Europako Hondakinen Katalogoan (EHK) agertzen direnak.

Hondakinen kategoriak (10/98 legearen eranskina)

Q1 Ekoizpen- edo kontsumo-hondakinak, ondoren zehazten ez direnak.

Q2 Arauekin bat ez datozen produktuak.

Q3 Iraungitako produktuak.


Q4 Ustekabeen edo istripuz isuritako materialak, galdutakoak edo beste edozein gorabehera izan dutenak, gertaera jakin horren ondorioz kutsatutako material, ekipoa, eta abar barne direla.

Q5 Jarduera boluntarioen ondoriozko materia kutsatzaileak edo zikindutakoak (adibidez, garbiketa-eragiketen hondakinak, paketatze edo enbalatzeko materialak, edukiontziak, eta abar)

Q6 Erabiltzen ez diren elementuak (adibidez, erabiltzen ez diren bateriak, katalizatzaile gastatuak, eta abar)

Q7 Erabilgaitz bihurtu diren substantziak (adibidez, azido kutsatuak, disolbatzaile kutsatuak, tenplaketa-gatz agortuak, eta abar).

Q8 Industria-prozesuen hondakinak (adibidez, zepak, destilazio-hondarrak, eta abar).

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 06	
	HONDAKIN EZABATZEKO PROZEDURA	Ekainak 2005	76.Orr.

- Q9 Kutsaduraren aurkako prozesuen hondakinak (adibidez, gasak garbitzearen ondoriozko lokatzak, aire-iragazkien hautsa, iragazki gastatuak, eta abar)
- Q10 Mekanizazio/akabera hondakinak (adibidez, torneaketa- eta fresaketa-txirbilak, eta abar)
- Q11 Lehengaiak erauzi eta prestatzearen ondoriozko hondakinak (adibidez, meatze- edo petrolio-ustiapenaren hondakinak, eta abar).
- Q12 Materia kutsatua (adibidez, PCBrekin kutsatutako olioak, eta abar)
- Q13 Erabiltzea legez debekaturik duen materia, substantzia edo produktu oro.
- Q14 Baliagarritasunik gabeko produktuak edo edukitzailearentzako erabilgarritasunik ez dutenak (adibidez, nekazaritzan, etxeetan, bulegoetan, biltegietan, lantegietan, eta abarretan baztertu edo zokoratutakoak)
- Q15 Lurzoruen erregenerazio-jardueretatik datozen materia, substantzia edo produktu kutsatuak.
- Q16 Aurreko kategorien barruan sartzen ez den substantzia, materia edo produktu oro.

Hondakin arriskutsu eta toxiko

Hondakin bat, dituen korrosibotasun, erreaktibotasun, lehergarritasun, toxikotasun, sukoitasun eta patogenotasuna direla-eta, osasun publikoarentzako arriskugarri izan daitekeena, edo ingurumenerako kaltegarri.


Hiri-hondakinak, hondakin egonkorak (inerteak) edo hiri-hondakinen parekoak (10/1998 Legea, Hondakinei buruzkoa)

Bizileku partikularretan, denda, bulego eta zerbitzuetan sorturikoak dira, bai eta arriskutsutzat jotzen ez diren guztiak, eta, haien izaera edo konposizioa dela-eta, aipatu berri ditugun leku edo jardueratan produzitutakoekin bateratu daitezkeenak ere.

Honako hauek ere udalerrietako edo hiriko hondakintzat joko dira: bide publikoak, berdeguneak, aisialdiko guneak eta hondartzak garbitzearen ondorioz sortzen diren hondakinak. Pilak eta metagailuak.

Etxeko animalia hilak, bai eta baztertutako altzari, tresna eta ibilgailuak ere. Pneumatikoak. Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondorioz sorturiko hondakinak eta zaborrak".

Kudeatzaile

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANeko ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 06	
	HONDAKIN EZABATZEKO PROZEDURA	Ekainak 2005	77.Orr.

Hondakinen kudeaketa osatzen duten eragiketetako edozein egiten duen pertsona edo entitatea, publiko zein pribatua, hondakinak sortu zein ez.

3.2 JARDUTEKO PROZEDURA

P.K.P. 06 flujograman, prozedura intuitiboki

Ikus daiteke. Eskola-komunitateko kideren batek ikastetxean hondakinen bat egon daitekela antzematen duenean, prozedura hau abiaraziko da.

Hondakin izan daitekeen hori antzeman duenak zuzendaritzari / segurtasuneko laguntzaileari jakinaraziko dio, eta azken horrek, Hezkuntza Saileko lan-arriskuen prebentzioko eskualdeko teknikariarekin laguntzaz, erabakiko du antzemandako hori hondakina den, eta hala bada, ezabatu edo deuseztatzeko modurik egokiena.

A) HIRI HONDAKINA, INERTEA EDO HIRI-HONDAKINTZAT JO DAITEKEENA

Hondakin horiek ezabatu edo birziklatzeko, ikastetxea zer udal-mankomunitate edo garbigunereren eraginpean dagoen, horrengana joko du zuzendaritzak, eta hondakina ikastetxetik kentzeko modurik onena adostuko dute.

B) HONDAKIN ERRADIAKTIBOAK, ARRISKUTSUAK EDO TA TOXIKOAK


Mota horietako hondakinak ezabatu edo birziklatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak baimena eman dio zenbait Hondakin-kudeatzaileari, EAEn jardun dezaten.

Ikastetxeko zuzendaritzak dagokion kudeatzailearengana joko du, eta ados jarriko dira hondakinak erretiratzeko.

Kontuan hartu behar da kudeatzaile horiek sozietate anonimoak direla, eta euren zerbitzuak kobratu egiten dituztela; beraz, ikastetxeetako titularren eta kudeatzaile horien arteko hitzarmenik egiten ez den bitartean, zerbitzuak eskatu dituen ikastetxeak ordainduko du. Gastu horiek **Ikastetxearen Funtzionamendu Gastuen Moduluari** egotziko zaizkio.

3.3 JARRAIPENA

Ikastetxeko zuzendaritzak / segurtasuneko laguntzaileak kudeaketa horren jarraipena egingo du, prozesua amaitutzat jo arte. Txosten bat ere egingo du, eta horren kopia bat bidaliko dio eskualdeko Prebentzio Zerbitzuko teknikariari.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 06	
	HONDAKIN EZABATZEKO PROZEDURA	Ekainak 2005	78.Orr.

4 ERREFERENTZIAKO DOKUMENTUAK


- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa.
- Prebentzio Zerbitzuen Araudia.

Europako Batasuneko legeria:

- 75/442/EEE Zuzentaraua, 1975eko uztailaren 15ekoa, hondakinei buruzkoa. Europako eta estatu kideetako geroko arauen oinarritzat hartzen den esparru-araua da.
- 91/156/ EEE Zuzentaraua, 1991ko martxoaren 18koa, 75/442 EEE Zuzentaraua aldatzen duena.
- 92/692/ EEE Zuzentaraua, hondakinen gaineko txostenen normalizazioari buruzkoa.
- 259/93 zenbakiko Erregelamendua (EEE), Kontseiluarena, 1993ko otsailaren 1ekoa, hondakinak Europar Batasunaren barruan mugitzea, Batasunean sartzea eta Batasunetik ateratzea zaindu eta kontrolatzeari buruzkoa.
- 94/3/EE Erabakia, 1993ko abenduaren 20koa, hondakinen zerrenda bat ezarri duena (Europako Hondakinen Katalogoa), 75/442/EEE Zuzentaruaren 1. artikulua a) idatz-zatiaren arabera.
- 94/721/EE Erabakia, Batzordearena, 1994ko urriaren 21ekoa, Kontseiluaren 259/93 (EEE) Erregelamenduaren II, III eta IV eranskinak egokitzen dituena. Hondakinak Europar Batasunaren barruan mugitzea, Batasunean sartzea eta Batasunetik ateratzea zaindu eta kontrolatzeari buruzkoa da Erregelamendu hori.
- 96/61/EE Zuzentaraua, 1996ko irailaren 24koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoa.
- Kontseiluaren 1997ko otsailaren 24ko Ebazpena, Hondakinak Kudeatzeari buruzko Europako Batasuneko Estrategiari buruzkoa.
- 99/31/EE Zuzentaraua, Kontseiluarena, apirilaren 26koa, hondakinak bota edo isurtzeari buruzkoa.

Estatuko legeria:

- 10/1998 Legea, apirilaren 21ekoa, Hondakinei buruzkoa.
- Ebazpena, 1998ko azaroaren 17koa, Ingurumen Ministerioarena, Europako Hondakinen Katalogoa gure ordenamendu juridikoan txertatzen duena.
- Hiri Hondakinen Plan Nazionala 2000-2006 (Ministroen Kontseiluaren Akordioa, 2000ko urtarrilaren 7koa).

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 06	
	HONDAKIN EZABATZEKO PROZEDURA	Ekainak 2005	79.Orr.

Autonomia Erkidegoko legeria

Erabilitako olioak

- 259/1998 DEKRETUA, irailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketari buruzkoa
- AGINDUA, 2002ko maiatzaren 29koa, laginak hartzeko eta analitika egiteko funtzioei dagozkien tarifen zenbatekoa eguneratzen duena, 259/1998 Dekretuan ezarritakoaren arabera
- AGINDUA, 1998ko abenduaren 11koa, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuarena, laginak hartu eta analisiak egiteko tarifak onartzen dituen (…)

Hondakin sanitarioak

- 76/2002 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko dena

Hondakin inerteak

- 423/1994 DEKRETUA, azaroaren 2koa, hondakin inerteak eta inertizazioaren gai izan direnak kudeatzeari buruzkoa
- AGINDUA, 1995eko otsailaren 15koa, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuarena, hondakin inerteen eta/edo inertizatuen isurtegien, lurren beteketen eta egokiketen instalazioei buruzko proiektu tekniko eta azalpen-memoriei buruzkoa
- 46/2001 DEKRETUA, martxoaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketa arautzeko dena

Hondakinak

- 3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena
- 34/2003 DEKRETUA, otsailaren 18koa, altzairua arku elektrikoko labeen fabrikatzeak sorrarazten duen zepa balorizatzea eta gerora erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duena



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

HONDAKIN EZABATZEKO PROZEDURA


PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 06

Ekainak 2005

80.Orr.

5 FLUJOGRAMA





Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua


IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

PROZEDUREN
ESKULIBURUA
AZALA P.K.P 07

Ekainak 2005


81.Orr.

ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA

 <p>Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 07	
	ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	83.Orr.

AURKIBIDEA

- 1 HELBURUA**
- 2 APLIKAZIO EREMUA**
- 3 DEFINIZIOAK**
- 4 JARDUTEKO PROZEDURA**
 - 4.1 HASIERAKO INFORMAZIOA
 - 4.2 ARRISKU FAKTOREEN IDENTIFIKAZIOA
 - 4.3 ARRISKUEN EBALUAZIOA
 - 4.4 NEURRI ZUZENTZAILEAK PROPOSATZEA
 - 4.5 NEURRI ZUZENTZAILEAK EZARTZEA
 - 4.6 NEURRI ZUZENTZAILEEN JARRAIPENA
- 5 ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK**
- 6 LABURPEN TAULA**

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 07	
	ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	85.Orr.

1 HELBURUA

Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketa Sistema Bateratuan ezarritako helburuak betez, prozedura honen helburua da metodologia bat definitzea, ikastetxeko lan-arriskuen hasierako ebaluazioa eta haren ondorengo errebisioak egiteko.

Ebaluazio hori Hezkuntza Sailak egingo du, ofizioz, Saileko Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren bidez.

Laneko arriskuen ebaluazioa prozesu bat da, ondoko helburuak dituena: saihestu ezin izan diren arriskuen garrantziaren estimazioa egitea, eta beharrezko informazio guztia biltzea, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabaki egokia hartzeko modua izan dezan prebentzio-neurriak erabiltzeari, eta erabiltzekotan, erabili behar diren neurriei buruz.

2 APLIKAZIO EREMUA

Ikastetxe bakoitzeko laneko arriskuen faktoreak ebaluatuko dira. Ebaluazio-taldeak ikuskapenak egingo ditu, arrisku-egoerak sor ditzaketen arrisku-baldintzak identifikatzeko, eta horretarako arrisku-faktoreak aztertu edo txekeatzeko zerrenda erabiliko dute, ondoko ataletan banatua: **Segurtasuna**, **Higienea**, **Ergonomiari** buruzko faktore batzuk eta **Bestelakoak** (kirol instalazioak eta haur-parkeak).

3 DEFINIZIOAK

Arriskua:

Arriskubide sor edo latente oro, garaiz kontrolatzen ez bada istripua, gaixotasuna edo kaltea eragin dezakeena.

Lan-arriskua:

Langile batek lanaren ondoriozko kalteren bat jasateko aukera.


Lan-arrisku larria eta berehalakoa:

Denbora gutxiren buruan gauzatzeko arrazoizko aukerak dituena, eta langileen osasunean kalte larria eragin dezakeena.

Arrisku-faktorea:

Lanarekin zerikusia duen eragile material, pertsonal edo gorabehera, zeinen eraginpean istripuak edo gaixotasunak izateko aukera handitzen baita.

Hasierako ebaluazioa eta aldian behingoa:

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 07	
	ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	86.Orr.

Arriskuaren kudeaketa profesionalerako tresna egokien aplikazio sistematikoa, arriskua IDENTIFIKATU, BALORATU, arriskuan ERAGIN eta arriskuaren JARRAIPENA eta kontrola egiteko, ekintza prebentiboak lehenetsi ahal izateko.

4 JARDUTEKO PROZEDURA

P.K.P 07 flujograman prozedura hau intuitiboki ikus daiteke.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 16. artikulua arriskuak ebaluatzeko irizpide orokorrak ezarri ditu; ildo beretik, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onetsi duen 39/1997 EDren II. kapituluko lehen sekzioan zabal garatzen da arriskuen ebaluazioari dagokiona.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko langile asko dagoenez, eta ikastetxeetako lan-arriskuak baloratzen diren lehen aldia denez, metodologia egokitu egin da, eta ebaluazioaren azken helburua aldatu, arriskuak saihestu, eta saihestu ezin direnak baloratu eta kontrolatzeko neurriak hartzeko garaian; beraz, ebaluazioaren helburu edo xedetzat hartu da ikastetxea bera, lanpostua hartu ordez.


Hartara, hasteko, ikastetxe bakoitzaren laneko arrisku-faktoreak baloratuko dira. Horrekin batera, Hezkuntza Sailaren mendeko kolektiboetarako lan-arriskuak ere baloratuko dira, hala nola, Sukaldaritza, Garbiketa, Hezkuntza Bereziko Laguntzaileak eta Irakasleak; azken horiek, halaber, banatu egingo dira, lan-arriskuetan dituzten espezialitate berezien kolektiboen arabera (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Heziketa Zikloak, eta abar), Ergonomiaren eta Psikosoziologiaren aldetik begiratuta.

Prozedura horren garapena Hezkuntza Saileko prebentzio-teknikarien esku egongo da, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onetsi duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 36. eta 37. artikuluetan zehaztu diren eginkizunen arabera.

Era berean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 33. artikulua arabera, enpresaburuak (ikastetxearen titularrak) langileen ordezkariari edo, ordezkariarik ez badago, langileei zuzenean kontsultatu behar die enpresan edo lantokian erabili behar den ebaluatzeko prozedurari buruz.

4.1 HASIERAKO INFORMAZIOA

Hezkuntza Saileko prebentzio-teknikariek arrisku-faktoreen hasierako ebaluazioa egin beharko dute ikastetxeetan, eta ebaluazio horren balioak

 <p>Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	<p>IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)</p>	<p>PROZEDUREN ESKULIBURUA</p>	
		<p>P.K.P. 07</p>	
	<p>ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA</p>	<p>Ekainak 2005</p>	<p>87.Orr.</p>

zuzeneko zerikusia du ebaluazio horretarako diseinatu den ebaluazio-tresnaren fidagarritasunarekin (noraino ebaluatzen du ebaluatu nahi duena?), baita arrisku-faktore horien gainean beste teknikari batzuek eta ikastetxeko langileek eurek —funtsean, zuzendaritza-taldeak eta arriskuen prebentziorako laguntzaileak — eman dezaketen informazioarekin.

Hori guztia horrela, ikastetxeko eraikuntza-baldintzak eta instalazioen egoera (argia, gasa, ura, berokuntza,...) behar bezala ebaluatuko badira, funtsezkoa da **ikastetxeko langileen informazioa eta laguntza** lortzea. Informazio hori, gainera, osatu egingo da, Unitate Teknikoak edo ikastetxearen kontserbazioaz, mantentzeaz eta zaintzaz arduratzen diren langileek eman dezaketen informazioarekin.


Hartara, bisita egin aurretik, egiaztatu egingo da ikastetxean ondokoei buruz dagoen informazioa:

- Ikastetxeari buruzko datu orokorrak
- Larrialdietarako Plan eguneratua
- Ikastetxeko instalazioen deskribapena eta dokumentazioa
- Ikastetxeko plano eguneratuak
- Osasun-zaintzari buruzko azken azterketaren data
- Ikastetxearen eta jantokiaren osasun-auditoretza eguneratuak
- Ikastetxeko Istripu-gorabeheren Erregistroa

4.2 ARRISKU FAKTOREEN IDENTIFIKAZIOA

Arrisku-faktoreen identifikazioa txekeatzeko zerrenda osatuz egingo da. Hezkuntza Saileko prebentzio-teknikariek prestatu dute, sindikatuak Segurtasun eta Osasuneko Lurralde arteko eta Sektore arteko Batzordean egindako aportazioak kontuan hartuta.

Egin nahi den arrisku-faktore horien txekeoari begira, egoki da txekeatu nahi diren faktoreen behaketan **parte hartu edo lagunduko duen pertsonala** aurretik prestatzea (txekeatzeko tresnari buruzko ikastaroa). Era berean, beharrezkoa izango da langile horiek zuzenean parte hartzea, prebentzio-teknikariek eta prebentzio-ordezkariek batera, egin beharreko txekeo edo azterketa horretan; beraz, dagokion **ordu-liberazioa ahalbidetuko** zaie txekeoa egiteko aldiari.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 07	
	ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	88.Orr.

4.3 ARRISKUEN EBALUAZIOA

A) ARRISKUA KALKULATZEA

Arriskubide bakoitzak eragin dezakeen arriskua kalkulatu egin behar da. Horretarako, eragin ditzaketen kalteen (ondorioen) larritasuna eta arriskua gertatzeko aukera zehaztu behar dira.

B) KALTEAREN LARRITASUNA

Kalteak izan dezakeen larritasuna zehazteko, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- a. Zein gorputz-ataletan eragiten duen
- b. Kaltearen izaera, ez oso kaltegarritik oso kaltegarriira joan daitekeena.

Ez oso kaltegarrien adibideak:

- Azaleko kalteak: ebakidura eta mailatu txikiak, begien narritadura, hautsa dela eta.
- Molestiak eta narritadura, esate baterako: buruko mina, ondoeza edo deserosotasuna.

Kaltegarrien adibideak:

- Urradurak, erredurak, kommozioak, bihurritu garrantzitsuak, haustura txikiak.
- Gorreria, dermatitisa, asma, hezur- eta muskulu-nahasteak, ezintasun txikia eragiten duen gaixotasuna.


Oso kaltegarrien adibideak:

- Anputazioak, haustura handiak, intoxikazioak, askotariko lesioak, lesio oso txarrak.
- Minbizia eta bizialdia nabarmen murrizten duten beste eritasun kroniko batzuk.

C) KALTEA GERTATZEKO AUKERA

Kaltea gertatzeko aukera mailakatu egin daiteke, txikitik handira, ondoko irizpideen arabera:


- Aukera handia: Kaltea beti edo ia beti gertatuko da
- Aukera ertaina: Kaltea batzuetan gertatuko da
- Aukera txikia: Kaltea nekez gertatuko da

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 07	
	ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	89.Orr.

Kaltea gertatzeko aukera ezarri behar denean, kontuan izan behar da lehendik ezarritako kontrol-neurriak egokiak diren ala ez. Legezko betebeharrak eta kontrolerako neurri espezifikoei jardun onerako kodeak ere garrantzitsuak dira. Laneko jardueri buruzko informazioaz gain, ondokoak ere hartu behar dira kontuan:

- a) Langile batzuk bereziki sentiberak izatea arrisku jakin batzuekiko (ezaugarri pertsonalak edo egoera biologikoa).
- b) Arriskubidearen eraginpean jartzeko maiztasuna.
- c) Zerbitzu-akatsak. Adibidez: elektrizitatea eta ura.
- d) Instalazioetako eta makinetakiko osagaien akatsak, baita babesgailuenak ere.
- e) Elementuekiko esposizioa.
- f) Banakako babes-ekipoek emandako babesak eta ekipoen erabilpen-aldia.
- g) Pertsonen egintza edo jarduera ez seguruak (nahigabeko akatsak eta prozedurak nahita urratzea):

Ondoko laukiak metodo erraza eskaintzen du arrisku-mailak balioesteko, aurrez ikusitako aukeraren eta espero diren ondorioen arabera.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 07	
	ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	90.Orr.


D) ARRISKU-MAILAK.TAULA

ARRISKU-MAILAK.

		<i>Ondorioak</i>		
		<i>Ez oso kaltegarria EKL</i>	<i>Kaltegarria KL</i>	<i>Oso Kaltegarria OKL</i>
<i>Aukera</i>	<i>Txikia T</i>	Arrisku xumea X	Arrisku onargarria O	Neurrizko arriskua NE
	<i>Ertaina E</i>	Arrisku onargarria O	Neurrizko arriskua NE	Arrisku handia HA
	<i>Handia H</i>	Neurrizko arriskua NE	Arrisku handia HA	Arrisku onartezina OZ

E) ARRISKUEN BALORAZIOA: ARRISKUAK ONARGARRI OTE DIREN ERABAKI

Ondoko taulan iradokitzen da irizpide bat, erabakia hartzeko abiapuntutzat har daitekeena. Taulak, orobat, arriskuak kontrolatzeko egin behar diren ahaleginen berri ematen du, baita kontrol-neurriak hartzeko premia edo urgentziarena ere. Neurriak arriskuaren arabera izango dira.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 07	
	ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	91.Orr.

Arriskua	Jarduera eta denbora
Xumea (X)	Ez da berariazko jarduerarik behar.
Onargarria (O)	Ez dago prebentzio-ekintza hobetu beharrik. Hala ere, irtenbide errentagarriagoak edo zama ekonomiko handirik ez dakarten hobekuntzak kontsideratu behar dira. Aldian aldiko egiaztapenak behar dira, kontrol-neurrien eraginkortasunari eusten zaiola segurtatzeko.
Neurritzkoa (NE)	Arriskua gutxitzeko ahaleginak egin behar dira, eta horretarako behar diren inbertsioak zehaztu. Arriskua gutxitzeko neurriak epe jakin batean ezarri behar dira. Neurritzko arriskua ondorio oso kaltegarriei lotzen bazaie, osteko jarduera bat beharko da, kaltearen aukera gehiago zehazteko, kontrol-neurriak hobetu beharra finkatzearen.
Handia (HA)	Arriskua gutxitu arte ez da lana hasi behar. Baliteke eskuarte handiak behar izatea arriskua kontrolatzeko. Arriskua egiten ari den lan bati badagokio, arazoa laster konpondu behar da, neurritzko arriskueta baino azkarrago.
Onartezina (OZ)	Arriskua gutxitu arte ez da lana hasi behar, ezta lanean jarraitu ere. Baliabide mugagabeak izanda ere, arriskua gutxitzerik ez badago, debekatu egin behar da lan egitea.

Saileko arduradunek eta Segurtasuneko laguntzaileak proposatuko dituzte ebaluatu diren arriskuentzako ekintza zuzentzaileak.


Ekintzen arteko lehentasunak ezartzeko, arriskuaren magnitudeari edo larritasunari begiratuko zaio.

4.4 NEURRI ZUZENTZAILEAK PROPOSATZEA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko prebentzio-teknikariek, segurtasun-arduradunarekin (zerbitzuaren arduradunarekin) batera, dagokion txostena egingo dute, eta bertan, arrisku-faktoreen ebaluazioaz gain, ebaluatu diren arriskuetaarako ekintza zuzentzaileen proposamenak jasoko dituzte.

Txosten horrek, gainera, ekintzak lehenetsiko ditu arriskuaren magnitude edo larritasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera. Batez ere, premiarik handiena duten ekintzak zehaztuko dira.

Arrisku-faktore jakin batzuk ebaluatu ondoren ateratzen bada horiei lotutako arrisku-maila **ONARTEZINA** dela, prebentzio-teknikariek eta zerbitzuko arduradunak berehala helaraziko diote zerbitzu-oharra Hezkuntza, Unibertsitate

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 07	
	ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	92.Orr.

eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, arrisku-faktore horrekin zerikusia duen edozein jarduera bertan behera uztea eskatuz. Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak ikastetxeari helaraziko dio ebaluatu diren arrisku-faktoreen ebaluazioa, ikastetxeko horretako langileek, segurtasun-laguntzailearen bidez, arrisku horiek ezagutu eta prebenitu ditzaten, bakoitzak bere ahalmenen neurrian.

4.5 NEURRI ZUZENTZAILEAK EZARTZEA

Prebentzio-teknikariak eta zerbitzuko arduradunak egindako txostenaren berri jaso ondoren, eta helburu horretarako ezarriko den prozeduraren barruko bide egokiak erabilita, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari dagokio beharrezko mekanismo edo baliabideak jartzea (mekanismo horiek Hezkuntza Saileko beste unitate batzuen jarduerari ere eragin diezaiokete, edo eskola-erakundeak iraunarazi, mantendu eta zaintzeko eskumenak dituzten beste administrazio batzuei ere helarazi) neurri zuzentzaile egokiak hartzeko, antzemandako arriskua kendu, edo hori ezinezko bada, gutxitzeko.


Neurri zuzentzaileak ezartzeko orduko lehentasunek zerikusi zuzena izango dute ebaluaturiko arriskuaren magnitude edo larritasunarekin.

Era berean, proposaturiko neurriak ezartzeko orduan, proposaturiko prozedurari buruzko kontsulta egingo zaie langileen ordezkariari, edo, ordezkariarik ezenean langileei, zuzenean. Neurriok abiarazteko, gainera, dagokion ikastetxean prebentzio-laguntzaile izendaturiko pertsonalaren laguntza ezinbestekoa izango da; izan ere, laguntzaile horiek, Saileko prebentzio-teknikarien lankidetzarekin, ikastetxeko gainerako irakasleentzako prestakuntza- eta informazio-bideak ezarriko dituzte.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dagozkion aurrekontu-partidak izendatuko ditu planteatu diren neurriak ezartzeko.

4.6 NEURRI ZUZENTZAILEEN JARRAIPENA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, horretarako ezarriko den prozeduran zehaztutako bidez baliatuta, erabideak antolatuko ditu hartutako neurrien ezarpenari behar bezalako jarraipena egiteko. Nolanahi ere, helburu horretarako, ikastetxeko langile laguntzaileen lankidetzak izango du.

 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 07	
	ARRISKUEN EBALUAZIORAKO PROZEDURA	Ekainak 2005	93.Orr.

Era berean, proposaturiko prozedurari buruzko kontsulta egingo zaie langileen ordezkariari, edo ordezkaririk ezean, langileei euri.

5 ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa.
- Prebentzio Zerbitzuen Araudia, 39/1997 ED, urtarrilaren 17koa.
- Ikastetxeetako laneko arriskuen hasierako ebaluaziorako eredia.
- Aplikatu daitezkeen beste arau batzuk.

6 LABURPEN TAULA

*(Ikastetxeak, lantegi edo tailer espezifikoak sartu gabe)

Urteko lan-plana	Urteko lan-planaren barruan, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak onartuko du ebaluatu beharreko ikastetxeen zerrenda. Ondokoak zehazteko irizpideak erabakiko dira: <ul style="list-style-type: none"> • Ebaluatu nahi diren ikastetxeak. • Aurreikusitako datak.
Zerbitziburutza	Era berean, dagokion ikastetxeko zuzendaritzari idazkia bidaliko zaio, ebaluazioa egingo dela jakinaraziz, eta laguntza eskatuz.
Hasierako informazioa (Prebentzio-teknik.)	Saileko prebentzio-teknikariak ikastetxeko zuzendaritzari/ laguntzaileari eskatuko dizkiete ondoko datuak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikastetxearen datu nagusiak. 2. Plano eguneratuak. 3. Instalazioen deskribapena eta dokumentazioa. 4. Larrialdi-plan eguneratua. 5. Osasun-auditoretzaren datuak (Jantokia-ikastetxea) 6. Ikastetxeko langileen osasun-zaintzari buruzko datuak/data. 7. Ikastetxeko istripu-gorabeherei buruzko datuak.
Arrisku-faktoreak txekeatzeko trebakuntza. (Prebentzio-teknik.) (5 egun)	Prebentzio-teknikariak, Lurralde Ordezkararen baimena jaso ondoren, pertsonal laguntzailea trebatzeari ekingo diote, aurrez ikusitako egunetan, txekeatzeko zerrenda erabiltzen ikas dezan. Laguntzaileek prestakuntza jasotzea ahalbidetzeko, beharrezko ordezkioak jarriko zaizkie.



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

ARRISKUEN EBALUAZIORAKO
PROZEDURA

PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 07

Ekainak 2005

94.Orr.

<p>Arrisku-faktoreak txekeatzea. (Laguntzailea)</p>	<p>Laguntzaileak ikastetxean bertan egiaztatuko du arrisku faktoreak txekeatzeko zerrenda. Zeregin horretarako, ikastetxeko mantentze-lanez arduratzen diren langileen laguntza eskatuko du (atezaina,...)</p>
<p>Ikastetxearen eraikuntza-baldintzen errebisioa. (Egun 1eko bisita)</p>	<p>Prebentzio-teknikariak laguntza eskatuko die Unitate Teknikoko langileei, ikastetxearen eraikuntza-baldintzak ebaluatzeko. Era berean, alor horretan eskumenak dituzten beste administrazio batzuetako teknikarien laguntza ere eskatuko du.</p>
<p>Arriskuak identifikatzea. (5 egun)?</p>	<p>Prebentzio-teknikariak, langile laguntzaileekin batera, arrisku-faktoreak txekeatzeko zerrendaren item edo elementuak egiaztatuko ditu. Hori egin aurretik, Lurralde Ordezkaritari zerbitzu-oharra bidaliko zaio, oniritzia eman dezan eta Langile-unitateari agindu diezaion ordezkoa jar diezaiola ebaluazioan laguntza eman behar duen pertsonalari.</p>
<p>Ebaluazio-txostena. (Prebentzio-teknik.) (5 egun)?</p>	<p>Prebentzio-teknikariak dagokion txostena egingo du, neurri zuzentzaile egokiak proposatuz eta lehentasunez ezarri beharreko neurriak erabakiz. Dagokion txostena eginik, izenpetu egingo da, eta Lakuako Zerbitziburutzari bidaliko zaio, posta-zakuz (saca delakoa). Zerbitziburutzak dagozkion kopiak bidaliko dizkie Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ikastetxeari eta ikastetxean eskumenak dituen udalari. Kopia horiek prebentzio-ordezkarien esku ere egongo dira. Arrisku-faktore jakin batzuk ebaluatu ondoren ateratzen bada horiei lotutako arrisku-maila ONARTEZINA dela, prebentzio-teknikariek eta zerbitzuko arduradunak berehala helaraziko diote zerbitzu-oharra Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, arrisku-faktore horrekin zerikusia duen edozein jarduera bertan behera uztea eskatuz.</p>
<p>Arriskuak eta neurri zuzentzaileak jakinaraztea</p>	<p>Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari dagokio beharrezko mekanismo edo baliabideak jartzea (mekanismo horiek Hezkuntza Saileko beste unitate batzuen jarduerari ere eragin diezaiokete, edo eskola-erakundeak iraunarazi, mantendu eta zaintzeko eskumenak dituzten beste administrazio batzuei ere helarazi) neurri zuzentzaile egokiak hartzeko, antzemandako arriskua kendu, edo hori ezinezko bada,</p>



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANeko ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

ARRISKUEN EBALUAZIOAKO
PROZEDURA

PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 07

Ekainak 2005

95.Orr.

gutxitzeko. Neurri zuzentzaileak ezartzeko orduko lehentasunek zerikusi zuzena izango dute ebaluatutako arriskuaren magnitude edo larritasunarekin. Gainera, proposaturiko neurriak ezartzeko orduan, proposaturiko prozedurari buruzko kontsulta egingo zaie langileen ordezkariari, edo, ordezkariarik ezean langileei, zuzenean. Segurtasuneko laguntzailearen bitartez, ikastetxe horretako langileek, euren ahalbideen neurrian, arrisku horiek ezagutu eta prebenitu ditzakete.



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua


IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA
SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)

PROZEDUREN
ESKULIBURUA
AZALA P.K.P 08

Ekainak 2005

97.Orr.

LARRIALDIETARAKO PLANA

 8 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.) LARRIALDIETARAKO PLANA	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 08	
		Ekainak 2005	99.Orr.

Jarduera honen garapena hemen dago jasota: **LARRIALDIETARAKO PLANA**,
 EJren Herrizaingo Saila – Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.



Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO
ARRISKUEN PREBENTZIOAREN
KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA
(L.A.P.K.S.)

PROZEDUREN
ESKULIBURUA

AZALA P.K.P 09

Ekainak 2005

101.Orr.

LANEKO GORABEHERAK ETA LAN ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA

<p>8 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 09	
	LANEKO GORABEHERAK ETA LAN ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA	Ekainak 2005	103.Orr.

AURKIBIDEA

- 1 HELBURUA**
- 2 NORAINOKOA**
- 3 ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK**
- 4 DEFINIZIOAK**
- 5 JARDUTEKO PROZEDURA**
 - 5.1 GORABEHERA**
 - 5.2 ISTRIPUAK, BAJA ERAGITEN DUTENAK ETA BAJA ERAGITEN
EZ DUTENAK.**
 - 5.3. KONTRATETAKO LANGILEEKIKO JARDUERA**
- 6 FLUJOGRAMA**
- 7 ERANSKINAK**

1 HELBURUA


Ikastetxe batean gerta daitezkeen laneko gorabehera eta istripuak erregistratu eta jakinarazteko erabili behar den sistematika ezartzea

2 NORAINOKOA

Honako hauei aplikatzen zaie prozedura: Hezkuntza Saileko langileei eta azpikontratetako pertsonalari gertaturiko laneko gorabehera eta istripu guztiei, mediku-bajarekin zein gabe.

3 ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK

- 171/ 2004 ED, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 24 d 4 artikulua garatzen duena, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez.
- 54/ 2003 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arau-esparrua aldatu duena.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (BOE, 269 zk., azaroaren 10ekoa). 23, 1e) artikulua.
- AGINDUA, Lan Ministerioarena, 1987ko abenduaren 16koa, laneko istripuak jakinarazteko eredu berriei eta horiek bete eta tramitatzeari buruzkoa (BOE, abenduaren 29a)

 8 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
	LANEKO GORABEHERAK ETA LAN ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA	P.K.P. 09	
		Ekainak 2005	104.Orr.

- AGINDUA, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioarena, 2002ko azaroaren 19koa, laneko istripuak jakinarazteko eredu berriak ezarri eta horiek prozedura elektronikoen bidez bidaltzeko aukera ematen duena (BOE, 270 zk., azaroaren 21a).
- EBAZPENA, 2002ko azaroaren 26koa, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren Idazkariordetzarena, laneko istripuen jakinarazpen elektronikoa egiteko sistemaren (Delt@) erabilera arautzen duena (BOE, 303 zk., abenduaren 19a).
- Sailaren barne-arauak.LAPKSB

4 DEFINIZIOAK

Laneko istripua: Soldatuko langileak inoren kontura egiten duen lanean edo lanaren ondorioz jasan dezakeen edozein gorputz-lesio. Laneko istripuen barruan, "in itinere" istriputzat joko da langileak lantokirako joan-etorrietan jasan dezakeena.

Laneko istripua, bajarik eragiten ez duena: Lesioa eragiten du, baina langileak bere lana egiten jarrai dezake, asistentzia jaso ondoren.

Laneko istripua, baja eragiten duena: Langileari bere lanean jarraitzea eragozten diona. Legeen ikuspuntutik, baja eragiten duen istriputzat jotzeko, langileak egun bat gutxienez egon behar du bere lanpostutik kanpo, istripuaren eguna kontuan hartu gabe.

Gorabehera: Edozein jardueratan aritzean eman daitekeen edozein egoera, lesiorik eragin ez, baina lesioak eragin ditzakeena.


5 JARDUTEKO PROZEDURA.

5.1 GORABEHERA

Gorabeherarik gertatuz gero, antzematen duen edozein pertsonak jakinarazi egin behar dio segurtasun-laguntzaileari / Zuzendaritza-taldeari.

Hemen erregistratuko dute: **01 eranskina: GORABEHEREN ERREGISTROA**, eta erregistro hori Prebentzioko Zerbitzuari (PZ) bidaliko zaio urtero, baita PZk berak eskatzen baldin badu ere, hala egokitzen bada gorabeheraren ikerketari ekiteko, Prebentzioko Zerbitzuaren barne-prozedurari jarraituz.

PZk Gorabeheren Erregistroko datuak eska ditzake Oinarrizko Errutinak (Rutinas Básicas) dokumentuaren bidez.

 <p>8 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 09	
	LANEKO GORABEHERAK ETA LAN ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA	Ekainak 2005	105.Orr.

5.2 ISTRIPUAK, BAJA ERAGITEN DUTENAK ETA BAJA ERAGITEN EZ DUTENAK.

Istripua jasan duenari laguntza emateko beharrezko ekintzak gauzatuko dira, ondokoari jarraituz: Nola jokatu istripu baten aurrean, P.K.P. 01 Dokumentua, **LAPKSBren Prozeduren Eskuliburua**.

Segurtasun-laguntzaileak / Zuzendaritza-taldeak ahalik eta azkarren emango du gertakariaren berri, ondokoa betez: **02 eranskina: ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO ORRIA**. Horretarako, ahalik eta informazio gehien eskuratuko da, gertakaria argitzeko datuak eman ditzakeena.

Ordezkaritzetako Gizarte Segurantzako Zerbitzuei jakinaraziko zaie, orain arte egin den bezala, telefonoz, postaz, faxez... Zerbitzu horiek prestatuko dute Istripu Partea.

Era berean, Prebentzioko Zerbitzuari (PZ) posta elektronikoz edo faxez helaraziko zaio, Zerbitzu hori arduratuko da-eta istripua ikertzeaz, hala badagokio, eta istripuen estatistikaz.

Orria bidaltzeko helbideak hemen zehazten dira: **03 eranskina: ISTRIPUEN ETA GORABEHEREN BERRI EMATEKO HELBIDEAK**

Lanaldiaren barruan, lantokian edo laneko joan-etorrietan gertaturiko istripuek langilearen heriotza eragiten badute, larritzat edo oso larritzat jotzen badira, edo lantokiko istripuak lau langileri baino gehiagori eragiten badie, berdin dio guztiak Saileko plantillakoak diren ala ez, ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaie dagokion Ordezkaritzako Gizarte Segurantzako Zerbitzuari eta Prebentzioko Zerbitzuari, telefonoz hasieran, eta ondokoan jasota utziz **02 eranskina: ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO ORRIA**.

5.3. KONTRATETAKO LANGILEEKIKO JARDUERA.

Istripu edo gorabeheraren batek eragindako pertsonala kontrataren batekoa baldin bada, ikastetxeko segurtasun-laguntzaileak / zuzendaritza-taldeak kontratako arduradunari jakinaraziko dio. Biek jakinaraziko diete gertakaria PZri, 5.2 eta 5.3 ataletan aurreikusitako moduan, langileak ikastetxekoak bertakoak balira bezala.

Prebentzioko Zerbitzuak urteko artxibo bat egin eta mantenduko du, eta bertan gordeko ditu aurreko ataletan aipatu diren jakinarazpen guztien kopia idatziak.

<p>8 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua</p>	<p>IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)</p> <p>LANEKO GORABEHERAK ETA LAN ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA</p>	<p>PROZEDUREN ESKULIBURUA</p>	
		<p>P.K.P. 09</p>	
		<p>Ekainak 2005</p>	<p>106.Orr.</p>

OHARRA:

Segurtasun-laguntzaileak / zuzendaritza-taldeak eranskinean jaso beharko ditu ikastetxean maiz edo noizbehinka aritzen diren kontraten datuak.

6 ERANSKINAK

01 Eranskina: GORABEHEREN ERREGISTROA

02 Eranskina: ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO ORRIA,

03 Eranskina: ISTRIPUEN ETA GORABEHEREN BERRI EMATEKO
HELBIDEAK



8 Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA
BATERATUA (L.A.P.K.S.)

LANEKO GORABEHERAK ETA LAN
ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA
JAKINARAZTEKO PROZEDURA


PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 09

Ekainak 2005

107.Orr.

6 FLUJOGRAMA





8 Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA
BATERATUA (L.A.P.K.S.)

LANEKO GORABEHERAK ETA LAN
ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA
JAKINARAZTEKO PROZEDURA

PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 09

Ekainak 2005

108.Orr.

7 ERANSKINAK 01 ERANSKINA: GORABEHEREN ERREGISTROA

Jakinarazpen zenb:

IKASTETXEari buruzko datuak:

Kodea Izena Telefonoa
Lurraldea Herria Helbidea

LANGILEARI buruzko datuak:

Izena Abizenak Sexua: Jaiotze-data

Adeskripzioa:

Hezkuntza Saila

Dozentea Haur Hezk. Lehen H D B H Batxilergoa Lan. H Besterik
Ez dozentea Sukaldekoa Garbiketa Besterik

Azpikotrata Sukaldekoa Garbiketa Besterik

Enpresa:

Administrazio Orokorra Administrazio-langileak Subalternoa Beste

Lan egoera:

Kontratu mota Finkoa Interinoa Besterik
Aitzinatasuna lanpostuan: Urte 1 arte 1 – 5 urte artean 5 urte baino gehiago

Lanpostua:

Gorabeheraren datuak:

Tokia: Lantokia Joanetorrian Desplazamendua lan orduetan
 Otros

Data: Egun Hila Urte Ordua (1 etik 24 arte) Asteko eguna

Deskripzioa:

Lekukoak

Izen abizenak

Telef:

Segurtasun laguntzailea /
Zuzendaritza taldea

Sinadura eta Ikastetxearen zigilua

Data



8 Lan Arriskuen
Prebentzio Zerbitzua

IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA
BATERATUA (L.A.P.K.S.)

LANEKO GORABEHERAK ETA LAN
ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA
JAKINARAZTEKO PROZEDURA

PROZEDUREN
ESKULIBURUA

P.K.P. 09

Ekainak 2005

109.Orr.

02 ERANSKINA: ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO.

Jakinarazpen zenb :

Bajarik ez

Bajarekin

Larria

Heriotza

IKASTETXEari buruzko datuak :

Kodea Izena Telefonoa
Lurraldea Herria Helbidea

LANGILEARI buruzko datuak :

Izena Abizenak Sexua Jaiotze-data

Adskripzioa:

Hezkuntza Saila

Dozentea Haur Hezk Lehen H D B H Batxilergoa L H Besteik
Ez dozentea Sukaldekoa Garbiketa Besterik

Azpikotrata

Sukaldekoa Garbiketa Besterik

Enpresa:

Administrazio Orokorra

Administrazio-langileak Subalternoa Besterik

Lan egoera:

Kontratu mota Finkoa Interinoa Besterik
Aitzinatasuna lanpostuan Urte 1 arte 1 - 5 urte artean 5 urte baino gehiago

Lanpostua:

Prebizio Sistema GSIN MUFACE Osasun asistentzia GSIN MUFACE

Istripuaren datuak :

Tokia Lantokia Joanetorrian Desplazamendua lan orduetan
 Beste

Data: Egun Hila Urte Ordua (1 etik 24 arte) Asteko eguna


Deskripzioa:

Lekukoak Izen abizenak Telef.:

Segurtasun laguntzailea
/ Zuzendaritza taldea

Sinadura eta ikastetxearen zigilua

Data

 8 Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua	IKASTETXEETAKO LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA (L.A.P.K.S.)	PROZEDUREN ESKULIBURUA	
		P.K.P. 09	
	LANEKO GORABEHERAK ETA LAN ISTRIPUAK ERREGISTRATU ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA	Ekainak 2005	110.Orr.

**03 ERANSKINA: ISTRIPUEN ETA GORABEHEREN BERRI EMATEKO
HELBIDEAK**

*** LURRALDE OEDEZKARITZETAKO GIZARTE SEGURANTZAKO
ZERBITZUAK .**

	Telefonoa	Faxa
ARABA	945- 017238	945- 017200
BIZKAIA	94- 4031138	94- 4031163
GIPUZKOA	943- 022878 -77- 76-75	943- 022851

*** HEZKUNTZA SAILEKO LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO
ZERBITZUA.**

PREBENTZIO ZERBITZUA	Telefonoa	Faxa	Emaila
Arduraduna	945- 018411	945- 018336	huismedi@ej-gv.net

*** MUFACE.**

	Telefonoa
ARABA	945 - 759400
BIZKAIA	94 - 4509001
GIPUZKOA	943- 989001

*** IKASTETXEAN LAN EGITEN DUTEN AZPIKONTRATATURIKO
ENPRESAK .**

LAN MOTA	ENPRESA	ARDURADUNA	TELEFONO A	FAXA